



## Beti gazte

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladaren 40. eta Gaztetxearen 15. urteurrenak dira / 2-4

**Ez dago aldaketarik**  
Altsasuko osasun eskualdean eta langile faltak berdin segitzen du / 7

**Santutegian lanak heldu den astean**  
hasiko dira eta Lakuntzetxe garilaren 3an mustuko dute / 6

**Altsasuko CBASK saskibalo**  
klubak goreneraino iritsi zen Naiara Diez Gonzalez omendu zuen / 17

**Sakanako Atletismo Eguna, Ziordiko Herri Lasterketa eta Andra Mari Binakakoa,**  
asteburuko menua / 16

**Izaskun Etxeberria Zufiaurre idazleak 'Esaten ez den guztian' liburua**  
argitaratu du / 22-23



**Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso**

ETXARRI ARANATZ

1970ko hamarkadaren bukaeran eta 1980ko hamarkadaren hasieran Etxarri Aranazko festek bederatzi egun irauten zuten. "Praktikoki mundu guztiak" bazeukan bere eguna: Kintoen eguna, haurren eguna, jubilatuen eguna... Garai hartan oraindik Espainiako ejerzitoan derrigorrezko soldaduska egitera behar zuten zituzten gazteak, baina baziren zerbitzu militarra egiteko gai ez zirenak: inutilak deitutakoak ziren. Herrenak, betaurrekodunak, pies planos esaten zietenak... Haien egoeratik "oso harro" zeudela aldarrikatzen hasi ziren, alde bategatik, ez zutelako nahi Espainia zerbitzatzera joan eta, bestetik, ez zirelako gai Espainiako ejerzitoan zerbitzatzeko. Orduan, pixkanaka biltzen hasi ziren.

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladaren lehenengo urratsak izan ziren. Orduan, 40 urte pasa dira, eta hamabost gaztetxea okupatu zutenetik. Urte berezia da, beraz, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladako kideendako, eta asteburu honetan ospakizun nagusienak eginen dituzte; baina ez bakarrik, izan ere, urtean zehar hainbat ekimen antolatuta eta antolatuko dituztela aurreratu dute Eider, Uxune, Aratz eta Intzara gazte asanbladako kideek.

**Historia**

Duela bi urte inguru Etxarri Aranazko Gazte Asanbladaren inguruko dokumental bat egiteko ideia izan zuten. Informazioa biltzen hasi ziren, eta "konturatu ginen ez genekiela ezer gaztetxeo historiaren inguruan". Garaiko gazteekin hitz egiten hasi ziren, eta pixkaka informazioa biltzen hasi. 40 urte atzera eginez, beraz, 1981eko festetan ospatu zuten lehenengo Inutilaren Eguna. "Esan beharra dago Tomas Huizik herriko gazteak asko lagundu zituela, berak egin zuten inutilen estatutuak, aldarrikapen egun bat nola izango



Inutilen egune. UTZITAKOIA

# Belaunaldiz belaunaldi

Duela 40 urte Etxarri Aranazko gazte talde bat biltzen hasi zen. Helburua gazteen beharrak identifikatzea zen. Hurrengo hamarkadan okupatu zuten lehenengo gaztetxea eta 2007an gaur egun gaztetxea dena. Asteburuan ospatuko dute.

litzatekeen azaldu zien...". Festa eta aldarrikapen egun bat izan zen, eta egun hori aitzaki hartuta biltzen jarraitu zuten.

Gazteek zituzten beharrak begiratzen hasi ziren. Jaso dutenaren arabera, lehenengo asanblada 1982. urtean egin zuten. "Kide gehienak inutilak edo Jarrai-tik etorritako asko izan ziren, kontzientzia politikoa zuten. Egoki ikusten zuten garai hartan Jarraik lantzen ez zituen eremu desberdinak lantzeko". Helburua zabaltzea zen, gazte gehiagok parte hartzea eta gaz-

teek zituzten behar eta eremu desberdinetan lan egitea. Pixkanaka-pixkanaka gazte berriak sartzen hasi ziren eta garai hartako "panoramaz" kontzientzia hartzen hasi ziren. "Esan beharra dago, hasiera horretan gehienak gizonezkoak zirela; oso emakume gutxi parte hartzen zuten".

**Gaztetxeak**

"Hasiera horretan, 1982. urtetik 1990ko hamarkadara, ez dakigu ongi non biltzen ziren. Badakigu HBko egoitza zen kaxeta

erabiltzen zutela bilerak egiteko, baita elkartetan elkartzen zirela ere". Gazte Asanbladako kideek jakin dutenez, garaiko asanbladaren eta udalaren arteko harremana "ona" zen, "HB zegoenean". "Kontatu digutenez, ez zegoen eskaintza kultural handia edo aisialdiari bideratutakoa, orduan, zuten azpiegitura bakarrenetarikoa zinema zen".

Gazteek gaur egun Etxarri Aranazko kultur etxea dena, garaiko zinema, kudeatzen hasi ziren. "Ostegunero pelikulak ematen zituzten, eta gero kon-

tzertuak antolatzen hasi ziren". Beraien lokala balitz bezala erabiltzen zuten. Udaletxearekin batera hilabete batzuetan gimnasioa eta zenbait ekimen eta jarduerak antolatzen zituzten ere, "betiere espazioa zinea zen". Zineak hutsunea betetzen zuten, "baina ez zituen beraien behar batzuk asetzen. Beraiek nahi zuten espazio bat, gaztetxe bat". Orduan, Zirkulo Katolikoa deitzen zen eraikina okupatu zuten.

Lehenengo gaztetxe hark oso gutxi iraun zuen: "Datak ez dakizkigu oso ongi, baina uste dugu 1997an okupatu zutela eta 1999an erori zela". Hasiera batean eraikin hori herriarena zen, baina 1936ko gerraren ondoren Frankistek herriari kendu eta beraiekin hartu zutela azaldu dute gazteek. "Zirkulo Katolikoa deitzen zen". Etxarri Aranatz "herri txiki bat izanda", ez zuten okupatzeko espazio asko eta etxe hori erortzen ari zela eta zaharra zegoela ikusten zuten, "okupatzeko aukera on bat zen".

Eraikina elizarena zen, eta okupazio saiakera asko egon zirela esan dute asanbladako kideek. "Elizak herriko gazte batzuk okupatzen saiatzeagatik epaiketara eraman nahi zituen, baina udalaren laguntzarekin, udalak bitartekaritza lana egin zuen, eta ezerezean gelditu zen". Azkenean, egun bat eta ordu bat jarri zuten, "ostiko bat eman eta gaztetxe horretan sartu ziren". "Asko jota" bi urte eta gutxi gehiago iraun zuen, "baldintza oso txarretan zegoen, eta teiltua erori zenean, gaztetxea utzi zuten".

**Hamabost urte**

Lehenengo gaztetxe horren esperientziaren ondoren, "kristoren beherakada" egon zela aitortu dute gazteek. "Zirkulo Katoliko gaztetxe zaharrea egon ziren gazte batzuk eta gazte ziren beste batzuk asanblada aktibatzeke prest zeuden, eta nolabaiteko transmisioa egin zuten. Lanketa desberdinak eginen hasi ziren". 1999tik 2007ra "tarte handia dago" eta asanbla-



dak Udaberri elkartean egiten hasi ziren, baita herriko zenbait elkartetan ere biltzen ziren. "Sentitzen zuten espazio baten beharra zutela beraien gauzak antolatzeko, eta moskeo kanpaina bat hasi zuten". Hasieran galdera ikurra agertu ziren, ondoren Noizko? kartelak eta, azkenean, Gaztetxea noizko? galdera zehatza. "Udalarekin eztabaida prozesu bat hasi zuten, eta udalak espazio bat emango ziela esan zuten".

Sei urte egon ziren gaztetearen zain. Gaur egungo gazte asanbladako kideek azaldu dutenez, garaiko kideak "azkenerako nazkatu ziren" eta tartean gaztea asanbladatik atera zen talde bat egon zen, "asanbladarekin kontaktatu gabe", alkateari eta zinegotzietzuei mehatxu gutunak bidali zizkienak.. "Horren eraginez eta udalari egin zioten presioaren eraginez matadero zahar ondoko giltzak lortu zituzten. Lehen udalaren biltegia zen". Aipatu dutenez, udaletxearekin ez zen arazorik egon, baina udal langileak ez omen zeuden bertatik material guztia ateratzeko prest. "Zinegotziak presionatu zituzten, giltzak lortu zituzten eta uztailean, festak baino aste bat lehenago, dena hustu zuten, kamioneta batean muntatu eta poligonoan udalak egin zuen pabilloi batera eramane zuten".

"Aipatzekoa da garai hartako gazteak zirenak esaten dutela gaztetearen egin zuten parranda hoberena izan zela okupatu eta aste batera, festetan, Kaotikok jo zuela eta edukiera baina sarrera gehiago saldu zituztela, 500 bat sarrera". 2006. urtean sartu ziren, eta 2007ko ekainaren 7an mustu zuten Etxarri Aranzko Gaztetxea, duela hamabost urte.

### Inertzia

Besteak beste, orain Eider, Uxue, Aratz eta Intzara gazteek osatzen dute Gazte Asanblada. Belaunaldi aldaketak "inertziaz" izaten direla azaldu dute. "Gu sartu ginen asanbladan ezagunak genituelako: anai-arrebak, lehen-gusu-lehengusinak... Eta orain sartu diren gazteekin berdintzat da; norbaitekin harreman estua dute eta inertziaz gertatzen da". Nola egiten da aldaketa? "Gaztetearen gelditzen diren zaharrenak ikusten dutenean bermaturik gelditzen dela, uzten dute". Inertzia. "Egia da guk

pandemiaren ondoren gazte batzuei komentatzen egon gintzaizkiola, egoeragatik gaztetearekin sartzeko guri baino gehiago kostatu zitzaielako".

Asanbladaren bitartez antolatzen dira, eta datak gerturatzen diren bitartean nola antolatuko duten prestatzen dute. "Bakoitzak proposamenak botatzen ditu eta kontuan hartzen dira". Denen artean hitz egiten dute eta erabakitzen dute. Batzarrak ostiralean egiten dituzte, normalean, neguan 22:00etan eta udan, "futbito txapelketa hasten denez", 17:00etatik 18:00etarako inguru horretan. Talde "motorrean" hamabost edo hogeitatu lagun daude, baina edozein ekimenarako laguntza behar badute herritarren laguntza eskatzen eta jasotzen dute.

### Bizitasuna

"Gaztetxea juerga egiteko leku bat dela pentsamendu hori dago, baina guk asanbladatik esaten dugu gaztetea ez dela bakarrik horretarako; gazteteak askoz ere gehiago ematen dio herriari". Kontzertuak ez ezik, hitzaldiak, filmen proiektzioak, mendi martxak eta abar antolatzen dituzte. Urteurren ospakizunen barruan ere dokumentala aurkeztuko dute. "Herriari bizitasuna ematen diogu. Udaletxeak bere gauzak antolatzen dituen bezala, gazteteak beste gauza batzuk antolatzen ditu".

Udalaren eta Gazte Asanbladaren arteko elkarlana izaten da: "Adibidez, urteurrenerako udalaren laguntza izan dugu, eta urtean zehar antolatzen ditugun ekimenetan haren laguntza izaten dugu ere". Udalari herria bizirik mantentzea interesatzen zaiola eta Gazte Asanbladari udalaren laguntza izatea interesatzen zaiola azaldu dute. "Ez bakarrik udalarena, tabernekin eta beste eragileekin ere elkarlanean aritzen gara. Baita herritarrekin ere, beraien proposamenak iristen zaizkigu". Euskal festarekin, esaterako, asanbladakoa ez den jende asko inplikatu dela esan dute. "Sukaldea, ticketera, barra, seguritatea... Asanbladako jendearekin bakarrik ezinezkoa izango zen". Azken urtetan "gorakada" egon dela esan dute. "Asanbladak gora-beheratsuak izaten dira, eta egon dira urte batzuk erantzuna izatea kostatu izan zaigunak. Baina azken



Inutilan egune. UTZITAKOIA



'Etxarri gaztetea noizko?' prentsaurrekoa. UTZITAKOIA



Kintoak muralaren aurrealdean. UTZITAKOIA

urtearen erantzuna oso ona izaten ari da".

### Urte berezia

Urtea antolatzerako orduan, zenbait data urte batetik bestera aurreikusten dituzte, gehien bat festen datak, urtero berdintzat ospatzen direlako: "Kintadak, ihoteak, euskal festak... gutxi gorabehera badugu egutegi bat data zehatzekin, eta gero hortik aurrera beste zenbait gauza antolatzen joaten gara".

**"SENTITZEN ZUTEN ESPAZIO BATEN BEHARRA ZUTELA HAIEN GAUZAK ANTOLATZEKO"**

**"PARRANDARAKO TOKI BAT BAINO GEHIAGO DA; HERRIARI BIZITASUNA EMATEN DIOGU"**

Asteburu honetan, ekainaren 3an, 4an, 5ean eta 7an, asteartea, eginen dituzte urteurren ospakizun nagusienak. Gaur txupinazoa jaurtiko dute eta ondoren dokumentala aurkeztuko dute, eta gauean Zea Mays eta Pureposse taldeen kontzertua egonen da ikastolako patioan. Oraindik sarrerak eros daitezke. Biharko Euskal festarekin batera, besteak beste, jaialdi erraldoia antolatu dute: Kaleko Urdangak, Unidad Alavesa, Kop, Los Zopilotes Txirrius eta DJ Tirri ta Tery taldeak ariko dira. 900 sarrerak agortu dira. Igandean haurren eguna izanen da eta asteartean, gaztetearen urteurren egunean, gazte asanbladaren eta gaztetearen historiaren erakusketa eta ohorezko aureskua eginen dute. Ekimen hauek antolatzeke talde berezia sortu zuten, eta ideia zein jende guztia bere lekua izaten ari da.

Asteburukoak ez dira urteurrenaren ospatzeko egin dituzten bakarrik. "Urte berezia" izan da, eta hamaika ekimen egin dituzte. "Konfinamendutik atera ginean dinamika aldaketa egon zen. Utzita bezala zegoen. Martxa hartzea kostatu zitzaigun, baina behin martxa hartu genuenean, nahiko ongi funtzionatzen du, eta gauza asko egin ditugu".

Jarduera hauekin "herriaren eta gaztetearen" arteko harremana "estutzen" joan nahi izan dute, eta hitzaldiak, bertso afaria, kontzertu akustikoak, bakarriketak, zozketak, haurrendako ekimenak eta abar egin dituzte. "Nabaritu dugu jendea prest eta animatuta dagoela antolatu ditugun gauza guztietan parte hartzera". Esaterako, asteburuan eginen diren ekimenendako txanda guztiak bete dira. "Asanbladan ibilitakoei esan genien, eta ilusio egin zuten laguntzea".

### Dokumentala

Urteurren ospakizun asteburuarri hasiera emanen dion txupinaren ondoren eskainiko dute, kultur etxean, Etxarri Aranzko Gazte Asanbladaren eta gaztetearen historia biltzen duen dokumentala. "Gaztetearen bilakaera eta hasiera nola izan zen ikusiko da, historia, argazki zaharrak...". Protagonistetara jo dute dokumentala sortzeko: "Etapako bakoitzeko pertsona bat edo bi biltzen eta elkarriketatzen saiatu gara. Hortik jaso dugu informazioa".



# FESTAK

## ETXARRI ARANATZ

**EKAINAK 3 ostirala**  
GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADAREN  
URTEURRENAREN HASIERA

19:00 Gaztetzeko dokumentalaren aurkezpena, kultur etxean.  
22:00 Kontzertuak: Puraposse eta Zea Mays, ikastolako patioan.

**EKAINAK 4 larunbata**  
EUSKAL FESTA

10:00etatik aurrera Eragileen azoka, plazan.  
11:00 Herri kirolak:  
Konbinatuak: Andra Mari ikastola.  
Aizkora erakusketa: Sakanako Aizkora Eskola.  
Harri jasotzaileen erakusketa: Aitor Oiarbide topo.  
12:30 Etxarrin kantuz.  
14:30 Bazkaria, plazan.  
17:30 Elektrotxuffa elektrotxaranga.  
20:00 Kontzertuak: Kaleko Urdangak, Unidat Alvesa, KOP, Los Zopilotes Txirrius, DJ Tirri ta Tery, ikastolako patioan.  
Sarrerak agortuta.

**EKAINAK 5 igandea**  
HAURRAN EGUNE

12:30 Herriko erraldioen konpartsa.  
16:30 Andra Mari ikastolak antolatutako binakako txapelketa, plazan.  
19:00 Go!azen ikuskizuna, ikastolako patioan.

**Ekainak 7 asteartea**  
GAZTETXEAK XV URTE

18:30etik aurrera Gazte asanbladaren eta gaztetzearren

historiako material eta argazki erakusketa, gaztetzearren.  
19:00 Ohorezko aurrezkoa, gaztetzearren.  
19:30 Auzatea, gaztetzearren.

## LAKUNTZA KINTADAK

**EKAINAK 4 larunbata**  
12:00 Baietz Sakanan 20.000 km. Sareren egitasmoaren barruan Lakuntzako erronka, Arangun-Ondatz ibilbidea.  
13:00 Auzatea eta Luissiana mariatiak.  
20:00 Auzatea.  
21:00 Zezensuzkoa.  
19:00-23:00 DJ Oixan, plazan.



ZEA MAYS

**ETXARRI ARANATZ** Puraposse eta Zea Mays taldeen kontzertua ekainaren 3an, ostirala, ikastolako patioan. Sarrerak Etxarri Aranazko Udalaren webgunean, eta Etxarri Aranazko Leku Ona eta Xapateron eta Sakanako zenbait herritako tabernetan eros daitezke 12 eurotan. Egunean bertan leihatilan erosteko aukera izanen da, 15 eurotan.

## Bueltan da Andra Mari ikastolaren Binakako Txapelketa

Igandean, ekainaren 5ean, 17:30etik aurrera Andra Mari Ikastolaren VII. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria jokatuko da, familia, jarduera fisikoa eta parte hartzea sustatzeko. Ordu bat lehenagotik izena eman daiteke, Etxarri Aranazko estalopean. Bost kategoria ezberdinetan jokatuko da. 2 eta 5 urte bitarteko haurrak bakarka ariko dira, moto lasterketan, eta gaintzakoak binaka. Haur bakoitzak heldu batekin osatu behar du bikoa, eta LH 5-6 mailatik aurrerako guztiek, nahieran. Bukaeran auzatea eta photocalla izanen da. Urbasa Abenturako zortzi sarrera eta Borda jatetzearren otordua zozketatuko dira.



Binakako Txapelketa. ARTXIBOA

## Altsasuko ferialekua festa gune bihurtuko da

Alde Zaharreko auzokideak elkartzen dituen festa larunbatean ospatuko da. Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ondoren, Alde Zaharrean bizi diren aldamenak elkartzeko ospakizunaren txanda iritsi da. Zortzigarren aldiz ospatuko dute beraien senidetze festa. Atzera ere Ferialeku kalean mahaia, aulkiak eta karpak jarriko dituzte. Askaren ondoan sua egin eta goiz-goizetik zikiroa prestatzen hasiko dira. 120 aldamenek eman dute izena. Majo bazkaldu ondoren kantu eta dantzarik ez da faltako, ezta zortzikoa ere. Iluntzera arte eutsiko diote festa giroari.



## Aralarkildarrak Aralarrera joanen dira igandean

Behartutako etenaren ondoren, urteroko hitzorduari helduko diote, atzera ere, arakildarrek: Aralarko erromeria. Oinez igoko denik izanen bada ere, gehienek ibilgailua aukeratuko dute mendigainera igotzeko. 12:30ean meza izanen da santutegian eta haren ondoren, 14:15ean, herri bazkaria izanen da.



107.3 FM

# beleixe

ZUZENEAN 10:00-12:00

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS



ASTEKOA

MAIALEN GALARZA IZAGIRRE

## Kultura ala ekonomia?

Kultura gizarte baten bizimoduaren parte da; kultura gizakiok egiten dugu, gure identitatearen zati garrantzitsua den heinean. Kulturak heterogenotasuna ekarri beharko luke bere baitan, gizarteko talde desberdinei lotuta egon, identitate desberdinei, beste kultura batzuekin etengabeko harremanean egon...

Egun, kultura begirada ekonomiko batetik ikusten eta kudeatzen dela esan daiteke; hots, kultura merkantilizatu egin da; hau da, kulturaren merkatu handi bat sortu da etekin ekonomikoa duena helburu. Izan ere, ekonomikoki errentagarria bada, orduan kultura da.

Beraz, gerta daiteke, kulturaren zenbait esparru edota komunitate osoa bera, errentagarriak ez izatea; ondorioz, kultura minoritarioak sortzen dira, merkatutik at geratzen dira. Garrantzia eta indarra galtzen dute. Era berean, merkatu ekonomia horrek sortu duen kultura, beste eremu prekario batzuk estaltzeko erabiltzen da.

Kultura heterogeneoa izango balitz, gizarteko talde desberdinei loturik dagoen zerbait izango balitz, ez litzateke horrela gertatuko. Manuel Delgadok dioen bezala, "la cultura es lo que gestionan los gestores culturales".

Baina, benetan al da kultura museo batean dagoen bizikleta bat, baina ez etxean dagoen aitonaen bizikleta zaharra? Ez, kultura ez da soilik museo bat, eskultura bat, opera bat, antzerki bat... kultura esan bezala inguratzen gaituen oro da, eta hori ezin da merkantilizatu. Eman diezaiozun prestigioa gure herriari, bertako biztanleei, ohiturei, jaiei, jende zaharren kontaketei...

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Kideak zerbitzua

#### SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Nafarroako Gobernuak gazte migratzaileen arreta eta garapen integralerako zerbitzua da Kideak zerbitzua. Nafarroan familiaren laguntzarik gabe dauden 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileen arreta eta garapen integralerako zerbitzua, akonpainamenduan eta mentoretza sozialean oinarritutako metodologiekin egina.

Kideak ondoko zerbitzuak ematen ditu:

- 18 urtetik 23ra bitarteko gazte horien autonomia prozesuak bulkatzea, esku hartzeko banakako planen bidez, gazte bakoitza haren aldaketa prozesuaren subjektu aktiboa izanik.

- Baliabide instituzional eta soziokomunitarioetarako sarbidea erraztea.

- Herritartasuna elkarrekin sortzeko prozesuak bulkatzea, erantzukizun partekatuaren ikuspegitik.

- Emakumeen ahalduntzea erraztea, genero desberdintasunen kontra egiteko.

- Berdintasunean oinarritutako maskulinitateak landu eta trebatzea, genero desberdintasunen kontra egiteko.

Sartzeko baldintzak: Programan sartzeko, adingabeak babesteko sistemak edo oinarrituko gizarte zerbitzuek bideratuko dituzte gazteak, eta administrazio unitate eskudunak, txosten baten bidez, egiaztatu beharko dituzte programan sartzeko ondoko baldintzak betetzen direla:

- Jatorriz atzerritarra izatea, eta 18 eta 23 urte bitartekoa.

- Nafarroan familia laguntzarik ez izatea.

- Zaurgarritasun handiko egoeran egotea.

- Konpromisoa hartzea ezarritako zerbitzuetan aktiboki eta probetxuz parte hartzeko.

- Hezkuntza eta gizarte laguntza behar izatea, intentsitate txikikoa, gizarteratzeko eta komunitatean bizitza autonomorako gaitasun pertsonalak bereganatu edo ez galtzeko.

- Programa bideraturik izatea adingabeak babesteko sistematik edo oinarrituko gizarte zerbitzuetatik, eta, azken kasu horretan, Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea, eskaera aurkezten den data baino sei hilabete lehenagotik gutxienez; administrazio unitate eskudunaren txostenean egiaztatuko dira baldintza horiek.

- Egoitza batean plaza bat okupatuko bada, egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu bat behar izatea, gizarteratzeko ibilbide bat egin ahal izateko.



## OBJEKTIBOTIK

### Etxarri Aranazko frontoia ring bilakatuta

Arrakasta handia izan zuen larunbatean antolatutako boxeoa, kick boxing eta K1 beilaldiak. Sakandarrek ez zuten zorzea alde izan: Irati Altzelai bigarren roundean erretiratu zen, Oihan Arnanzek K.O. bukatu zuen eta Aroa Petriatik eta Garat Floresek, nahiz eta euren konbateak galdu, euren borrokak despiditza lortu zuten. Kirol hauek kolpeak ematea baino askoz ere gehiago direla argi geratu zen.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernu





Harrera gunea, denda eta komuna atearen ezkerretan dauden leihoetan eginen dira.

## Santutegian lanak heldu den astean hasiko dira

Lakuntzetxe edo Deierrri etxea berritzeko lanak oso aurreratuta daudela, santutegiaren sarreran harrera gunea, denda eta komuna egiteko lanei ekinen diete kisugileek heldu den astean. Mezenazgoaren bidez lanak laguntzeko aukera dago

### UHARTE ARAKIL

Garabia bilduta, eramateko zain dago Aralarko santutegiaren ipar-mendebaldean. Lakuntzetxe edo Deierrri etxea berritzeko lanetan erabili dute. Harria garbituta, leiho berriekin, eder luzitzen du hiru solairuko eraikinak. Barruan hainbat gremioetako langilean ari dira lanean. Aralarko santutegirako 2018an egindako 2030era arteko estrategia planean jasota dago lan hori, lehen fasea dena. Eraikina garilaren 3an mustuko dute. Baina horren aurretik beste lan bat hasiko dute kisugileek, eta egin ahal izateko zeuden trasteak ateratzen egon dira aste honetan. Santutegiaren sarrerako pasabidea eta garai batean ostatua hartu zuen eraikina lotuta daude. Atearen ondoan dagoen espazioa, lehen bi leihoak hartzen dutena, hutsik zegoen eta han harrera gunea, denda eta komuna eginen dituzte.

Aralarko kaperau Mikel Garziandia Goñik azaldu duenez,

lan horiek estrategia planaren bigarren fasea dira. Garziandiak azaldu duenez, "lanak lehenbailehen hasi eta bukatu nahi ditugu, udarako martxan izan nahi baitugu". Gogoratu baitu Lakuntzetxe zabaldu ondoren haren erabiltzaileei zerbitzu emanen diela. Kaperauak argitu duenez, "lanak iraun bitartean mezak normal egonen dira eta santutegia ohi bezala bisitatzeko aukera ere egonen da".

Heldu den astean hasiko diren lanek 120.000 euroko aurrekontua dute. Lanek Nafarroako Gobernuaren Mecna zigilua edo kultur mezenazgoaren aitortza dute. Beraz, haren bidez diru ematen duten pertsonak edo enpresek errenta aitorpenean kenkaria izanen dute. Esaterako, 150 euro arte ematen dituzten pertsonak %80ko kenkaria izanen du. 150 eurotik gora ematen dutenek %40ko kenkaria dute. Enpresen kasuan, emandako zenbatekoak Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarria murrizten du,

gastu kengarritzat hartzen baita, eta, gainera, kuota likidoaren %30eko kenkaria lortzen da lehengo 300 euroetan eta %20koa hurrengoetan. Ekarpinak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean sartu behar dira, "Aralarko santutegia Mezenazgoa" dela zehaztuz. Garziandiak lanak bide horren bidez finantzatzea espero du: "Lakuntzetxe-ko lanak ordaintzeko mezenazgo kanpainaren bidez 126.000 euro lortu genituen; 24.000 euro 2020ko azken hiru hilabeteetan eta 102.000 euro joan den urtean". Aralarko aingueruaren irudia herriz herri egiten duen ibilbidea, herrietan dauden anaiak, santutegiak egin duen bideoa, guztiak egitasmoen berri emateko bideak dira.

**LAKUNTZETXE EDO DEIERRI ETXEAREN LANEN MUSTUTZEA GARILAREN 3KO 12:00ETAN EGINDA DA**

### Lakuntzetxearen mustutzea

Mende erdia erabili gabe egon ondoren, eta santutegiarendako arriskua izan zitekeelako, Lakuntzetxe edo Deierrri etxea berritzeko lanak 2020ko maiatzean hasi ziren. Lehen solairuan santutegiari buruzko interpretazio gunea hartuko du. Garziandiak aurreratu duenez, "espazio bizia izatea nahi dugu. Ukimen pantailen, ikus-entzunezkoen eta atzetik argizatutako panelen bidez ezagutaraziko dira santutegiaren erlijio, historia eta kultura alderdiak. Esaterako, erre-nta oso tamaina handian ikusgai egonen da. Historian barna egindako ibilbidearen gidaria hemendik Jerusalemara milagarren urte inguruan joandako talde bateko emakumezkoa izanen da". Lehen solairuan erabilera anitzeko aretoa egonen da, "edozein ekintza, ikastaro edo jardunaldi hartzeko. Guardetxea egiten da, baina, momentuz, Aralar inguruko jardueri toki egiteko espaziorik ez dago eta hori izan daiteke", azaldu du kaperauak. Bigarren eta azken solairuan kofradiaren eta santutegiko historia artxiboa eta lan gune bat egonen dira. Azken hori "iker-keta lanak eta halakoak egiteko balioko du. Udan, bi hilabetez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko bi ikertzaile egonen dira han lanean".

Garziandiak azaldu duenez, garilaren 3an, 12:00etan behe eta bigarren solairuak mustuko dituzte. Erabilera anitzeko gela janztea besterik ez da faltako eta ekarpenekin hori egitea espero dute. Eguerdiko mustutzearen ondoren, 12:30ean meza izanen da santutegian eta haren ondoren Etxarri Aranazko abesbatzak kontzertua eskainiko du.

### Hirugarren fasea

Santutegiaren estrategia planean jasoa dagoen hurrengo pausoa ostatua berritzea da. 30 bat logela ditu eta guztiz berritu behar dira. Garziandiak azaldu duenez, Italiako eta Frantziako San Migueli eskainitako beste bi monasteriorekin batera Europako Kultur Ibilbide proiektua lantzen ari dira, San Miguel bideak. Urtearen bigarren zatian proiektua lotuko dute aldeek. Bulkada hori lortuta, santutegiaren estrategia planean hirugarren faseari ekinen liokete eta, gauzak ongi, 2023an ostatua berritzen hasiko lirateke.

### Arakilgo historia eta ondarea ikertzeko bekak baditu jabeak

Ibarreko ondarearen eta historiaren inguruan lan bat egiteko, Arakilgo Udalak Jimeno Jurio 2022 izeneko beka deialdia egin zuen eta hiru proposamen aurkeztu ziren. Arakilgo Udalak erabaki du beka Agustin Cuevas eta Sol Criadori ematea. Biek urte bat izanen dute ikerketa egiteko. Trukean 6.000 euro jasoko dituzte.

### Lau Uharteak lotzen dituen ibilbidea liburuan jasoko da

Uharte Garazi, Uharteherri, Uharte Iruña eta Uharte Arakil batzen dituen ibilbidea sortu zuen Juan Mari Feliuk. Euskal kultura, kirola eta turismoa batuko dituen ibilbidea da. Ibilbidearen berri zabaltzeko Udalbiltzak liburua argitaratuko du eta, horretarako, Uharte Arakilgo Udalak 500 euro emanen ditu eta 500 liburu jasoko ditu.



Txirindulariak eskolarako bidean.

### Intxaurren kalea astegunetan 20 minutuz itxita

Asteazkenetik hilaren 20ra, 08:30etik 08:50era, Altsasuko Intxaurren kalean itxita egonen da. Astegun horietan Zelandi eskola publikora gurasoak eta ikasleak bizikletaz seguru joan ahal izateko sentsibilizazio kanpaina indarrean izanen da. Eskolara autoekin joan nahi dutenek Aminanespila kaleko Zelandi kiroldegiko aparkalekuan aparkatu beharko dute.





# Txilen eta Altsasun, bi kale

Isidoro Melero Noblearen birbilobek bi eguneko egonaldia egin zuten arbasoaren herrian, "erroetara" egindako bidaietan. Besteak beste, Isidoro Melero kalean eta udaletxean izan ziren. Han azaldu zuten Santiago de Txilen Altsasu kalea dagoela

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Gonzalo, Juan Ignacio, Jose Antonio eta Jorge Maiza Melero anaiak Altsasun egon ziren joan den ostiralean eta larunbatean. Guztiak aurretik Altsasun egonak ziren, bat lautan. Batek behin Altsasura iritsi zenean gertatutakoa kontatu zuen: autoa aparkatu eta gizon bati, Martin Zelaiari, Isidoro Melero kalegatik galdetu zion. "Honako hau da" esan zuen. Eta nondik zetorren galdetu zion, eta Txiletik zetorela erantzutean gizonak esan zuen: "hori gizon garrantzitsua izanen zen, beragatik galdezka beste pertsona batzuk ere etorri izan baitira". Gero jakin zuen bere anaia Gonzalo eta Juan Ignacio izan zirela.

Beraien ama hil ondoren lau anaiek elkarrekin "erroetara" bidai bat egin nahi izan zuten, "erroek beti deitzen dizutelako". Eta haien birraitonen herrietatik pasa ziren: Lemoiz, Mundaka eta Altsasu. Argitu dutenez, haien senide gehienak Burundakoak dira, "soilik gure amonetako bat ez zen altsasuarra" argitu zuten. Herrian dagoeneko ez dute seniderik.

Isidoro Melero Noble eta Paz Lopez de Goikoetxea haien birraitona eta birramona ziren. Anaietako batek azaldu duenez, "Isidoro eta Paz argazkiak amaren etxean daude jarrita. Gudan beti oso presente egon da Isidoro. Txikitatik erakutsi ziguten familia batua izatearen ideia, erroak gogoratzea, nondik gatozen gogoratzea". Bikoteak hiru seme eta alaba bat izan zituen: Guillermo (gerra zibilean hila, ez dakite ez non, ez nola), Pablo, Concepcion eta Rufino. Azkenak izan zuten familia bakarrik. "Antzeko zerbait gertatu zen gure aitona Rufino Mai-



Gonzalo, Juan Ignacio, Jose Antonio eta Jorge Maiza Melero.

za Urrestarazuren aldean (altsasuarra hura ere). Gu Jose Maiza Surearen semeak gara. Txilen Urrestarazu ugari daude, hainbat adarretakoak, gure senideak dira". Gogoratu zuten garai batean bainuetxe batera joaten zirela udan eta bertan hainbat Urrestarazu, Maiza, Gurrutxaga eta beste elkartzen zirela.

Seniderik ez badute ere, herriarekin harremana mantentzen dute. Jose Luis, Juan Jesus eta Mikel Zelaia Mendiak lagunduta ibili ziren Altsasun. "Asko ikasi dugu, erroen berri gehiago izatea zen helburua. Sorpresaren bat izan dugu, ezagutzen ez genuen informazioa jaso dugu eta gure lehengusuek izugarri estimatuko dute. Lehengusu nagusia, zenbaitetan hemen egona, enbaxadore izana eta oso ikasia dena, hark ere ezagutzen ez zuten informazioa jaso dugu. Ederra da. Helburua bete dugu. Seme-alabengan pentsatuz, gure erroak lantzeko indarra ematen digu. Oso eskertuta gaude".

Javier Ollo Martinez alkateak eta historia memoriako zinegotzi Jokin Zelaia Oiarbidek harrera egin zieten udaletxean. Baita bisitarien gidari lana egin aritu ziren Jose Luis, Juan Jesus eta Mikel Zelaia Mendiak ere. "Guretako ohorea eta emozioa da birraitonen eta aitonen lurra egotea", esan zioten alkateari. Udal ordezkariak lau bisitarien herriko armarrria brodatua duen zapi bana eta koadro bat oparitu zizkieten. Azken horretan Altsasuri hiri txit prestua izendapena eman zion Madrilgo Gazetaren (gaur egungo Estatuko Buletin Ofiziala) erreproduktzioa eta kale bati Isidoro Melero izena ematea erabaki zen udal bilkuraren aktaren kopia ageri dira.

## Alkate

Zinegotziak aukeratu zituzten 1903ko azaroaren 18an. 1904ko ilbeltzaren 1eko 10:00etan udal berria eratu zuten. Jose Mari Celaya Larreak, Antonio Salinasek, Juan Miguel Larreak, Jose Martin Mazquiarenak, Francis-

co Maria Goicoecheak, Santiago Celayak, Toribio Arreguik, Juan Jose Arinek eta Francisco Goicoechea Leceak zinegotzi berriei harrera egin zieten. Honakoak ziren: Isidoro Melero Noble, Paulino Arregui, Maximo Zabala, Jose Goicoechea eta Francisco Celaya. Aurretik zinegotzi izandako laukargua utzi zuten. Ondoren alkatea aukeratzeko bozketa sekretua egin eta gehienak Meleroren alde botoa eman eta alkate izendatu zuten. Bi urte pasata, atzera ere, alkate aukeratu zuten. 1908ko martxoaren 29ra arte izan zen alkate.

Melero alkate zela, 1907ko martxoaren 27an hiri txit prestu izendapena jaso zuen Alfontso XIII.a erregearen eskutik. Hitz horiek dira gaur egun herriko armarrria inguratzen dutenak. Antza, Vadilloko Marquesaren eta Lorenzo de Izal kaputxinoaren gestioen ondorio izan zen izendapena. Lau anaiek azaldu zuten amak kontatutakoa: "gure birraitona ministroren edo goi politikariren baten laguna zen. Kontuan izanik Altsasu tren geltoki garrantzitsua zela eta bestelako merituengatik, kontaktuak egin eta Altsasurendako hiribildu txit prestua izendapena lortu zuten. Halakoak ez zituen kontatzen aitona".

## Ogibidea

Noblea eta Meleroren alarguntsa izeneko txarol fabrika zegoen Altsasun, XX. mendearen hasieran. Lantegia Gipuzkoarako errepidean zegoen, gaur egungo Isidoro Melero kalean. 1905ean lantegiak 20 langile zituen. Enrike Zelaiak jaso duenez, urte hartan Santa Ageda ospatzen zuten gazteak ez ziren ohiko errege zozketara agertu, ez zuten saildua metzan gurtu ezta plazan zortzikoa dantzatu ere. Horregatik, suteen babesle den sailduak herria zigortu zuten txarol fabrikaren sutea "baimenduz", hala esan zuen apaizak.

Isidoro Argentinara, Buenos Airesera, joan zen 1908 edo 1910 urtean eta han larrugintzan segitu zuen. Mikelek Maite Soriak kontatutakoa aipatu zien: "zuen

## ISIDORO MELERO ALKATE ZELA LORTU ZUEN ALTSASUK HIRI TXIT PRESTU IZENDAPENA

aitona Argentinara Claudio eta Felix Agirrebengoarekin batera joan zen. Harekin lan egiten zuten eta harekin joan ziren". Rufino Melero (1888ko lastailaren 15ean jaioa) 1910 edo 1912an iritsi zen Txilera. Rufino Maiza Urrestarazu (1899an jaioa) Panamako kanala zabaldu berritan iritsi zen Txilera, 1914an. Batek txarola egiten zuen besteak larrugina zen.

Larruginen feria bat egon zen Buenos Airesen eta hara Txilen bizi zen alemaniar bat joan zen. Txarola egiteko zuten teknika ikusi eta Rufinori esan zion: "Txilen halakorik apenas dago, ez da egiten. Nik uste dut zuek merkatu handia dagoela han". Txilen zortea probatzera joan zen. Herrialde hari buruzko informazio gutxi zegoen eta "fedegutxi" zuten, baina ongi moldatu zen. Eta familia Txilera eraman zuen. "Oso teknika ona zen, txarolik onena egiten zuten. Eta XX. mende hasierako 20. eta 30. hamarkadetan txarola boladan zegoen: oinetakoetan, poltsoetan..." azaldu du anaietako batek, "garai hartan aberastu zen. Ondoren hirigintza negozioak egin zituen".

Lehen Mundu Gerra hasi zenean frantziarrendako lanean zegoen Valparaison (Txile). Jabe ziren hiru frantziarrak gerrara joan ziren eta larrugintza enpresaren ardura utzi zioten. Alemaniarren kontrako gerra azkar bukatuko zelakoan joan ziren, "hilabete batzuen ondoren bueltatuko gara". Lau urteren ondoren, hirurak bizirik bueltatu ziren. "Aitonak enpresa aurrera eginarazi zuen eta horregatik saritu zuten", azaldu dute. Zehaztapena ere egin zuten: "Txilen larrua ontzen zuten gehienak nafarrak eta iparraldekoak ziren: Etchegaray, Etchepare..."

Anaiek azaldu dutenez, aitona enpresa sortzarekin batera, haren ondoko lursail guztiak erosi zituen. Lur haiek zatikatu eta bere langileei eman zizkien, han beraien etxeak eraiki zituzten. Horretarako, estatuak langileei eraikuntza finantzatzea lortu zuen. Hala, lantegiaren ondoan Rufino Melero herria zegoen. "Aitonak gizarte ikuspegi handia zuen", zehaztu dute ilobek. Rotary Clubeko kide zela Zelanda Berriko eskola bat babestu zuen, diru ekarpen handiak egiten zituela jakinarazi zuten haren ilobek. Ekimen ugariengatik, Espainia-





Altsasuko txarol fabrikako langileak. ARTXIBOA



Isidoro Melero Noblea Ulaiariko bidean dagoen Galtzadako iturrian. ARTXIBOA



Rufino Melero erdian eserita, lore sorta oinetan duela. UTZITAKOA

ren izena goratzeagatik, Isabel katolikoaren domina eman zioten. Ondoren, herrialdearen alde asko egin zuten atzerritarrak aitortzeko Txileko Gobernuak ematen aitortza gorenena (Bernado O'Higgins) jaso zuen. Santiago de Txileko udalaren aitortza eta beste-lakoak ere jaso zituen.

Lau belaunaldiren ondoren Santiago de Txilen Curtiembre Rufino Melero SA enpresa dago, larruak ontzen dituena. Erdi eta Hego Amerika, Europa, Asia eta Ozeaniako 19 estatutara esportatzen du ondutako larrua. Javier Melero da enpresarekin harremanetan jartzeko kontaktua.

#### Kalea

Angel Ayerra Redin alkate zela, Altsasuko Udalak 1954ko garilarren 30eko bilkuran kale bati Isidoro Melero izena ematea erabaki zuen. Akta liburu batean jasoa dagoenez, "on Rufino Melerok udalari jakinarazi dio 100.000 pezeta (601,01 euro) eman nahi dizkiola". Ordurako dirutza zen. Rufinok zehaztu zuenez, diru hartatik 25.000 pezeta (150,25 euro) nekazari eta abeltzainen kooperatiba baterako ziren eta gainontzeko 75.000 pezetak (450,75 euro) kale "berriari" zorua emateko. Kale hori egungo Isidoro Melero kalea da.

Laukoteak azaldu zuenez, "aitonak ez zigun sekula esan halako dirutzarik eman zuenik. Esan ziguna da saiatu zela traktoreren bat ematen saiatu zela". Haiekin udaletxean zen Mikelek zehaztapena egin zuen: "Maite Soriak esan didanez, berak etxean beti entzun izan du Rufinok Altsasuko nekazariendako traktore bat erosi nahi izan zuela. Nekazariak bildu ziren. Makinak lursailen arteko mugarriak hautsi zitzaizkenez eta, ondorioz, bakoitzaren lurra zein ziren

### SUTEAK TXAROLDEGIA ERRE ONDOREN MELERO ARGENTINARA ETA HANDIK TXILERA JOAN ZEN

### RUFINO MELEROK 1954AN ALTSASURI 100.000 PEZETA, ORDURAKO DIRUTZA, EMAN ZION

jakiterik ez zenez izanzen, ezetz erabaki zuten. Eta, beraz, traktorea erosteko bideratutako dirua eman egin zuen". Horren berri bazuten lau anaiek.

Herria 1954 urtean udaletxean atzean bukatzen zen. Urte hartan mustutzearen Burunda frontoia. Intxostian etxe batzuk eraikitzen ari ziren. Batzuen eta besteen artean plaza bat sortu behar zen. Bilkura bereko beste puntu batean Altsasuko Udalak erabaki zuen Rufino Melero izena ematea sortuko zen plaza harri. Horrela eskertu zion udaletxean emandako dirua. Udaletxean ostiralean zeuden altsasuarren ustez herrian sekula ez da egon Rufino Melero plazarik.

#### Santiago de Txileko kalea

Rufino Melerok Santiago de Txileren kanpoko aldean lur ugari zituen eta hirigintza proiektuak egin zituen. Inguru hartako kaleei berak jarri zizkien izenak. Proiektu hailetako batean etxebizitzak eta irteerarik ez zuten hiru kalek zituen. Batek Albacete eta besteak Alacant izena zuten. Rufinok bere alaba bakoitzari etxe bat eman zien hirugarren kalekan. Haren akaberan jaio ziren lau anailetako hiru eta 2020an hil zitzaizen arreba ere. Bostetik lau Altsasu izeneko kalek jaio ziren, Santiago de Txilen.

Mikelek lehengusuak kontatutakoa azaldu zuen: "kale bati bere izena ematea proposatu ziotenean berak ezezkoa eman zuen. Berea beharrean kaleari bere herriaren izena emateko esan zuen". Lau anaiek esan dutenez, "hura eza gututa, litekeena da horrela izatea. Ez zitzaion gustatzen jendeak jakitea zer egiten zuten". Txilen zeuden espainiarren artean dirua bildu eta kirol, gizarte eta kultur elkarteak sortu zuten, Estadio Español izena hartu zuena; 1950eko lastailaren 12an mustu zuten.

Rufino Melero oso soziala zen. "Guretako oso presente zegoen aitona izan zen. Beti kontaktzen zizkigun bitxikeriak, beti kantarazi egiten zigun, espainiar koloniaren jarduerak zeuden tokietara, batera eta bestera eramaten gintuen. Bere oroitzapen izugarria dugu". Rufino Melerok bere memoriak idatzi zituen. "Zoritxarrez berak nahi bezain beste ezin izan zuen idatzi. Berandu. Familia giroko liburu bat idatzi zuen". Altsasura kopiaren bat helaraziko zietela jakinarazi zuten anaiek.

## Iragarritako errepide lanen berririk ez dute udalek

Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileak Leitzaldean eta Sakanan 30 lan aurreikusten ditu

#### SAKANA

Bernardo Ciriza Perez Lurralde Kohesiorako kontseilariak Sakanako eta Leitzaldeko udal ordezkariekin elkartu zen maiatzaren 19an. Errepideen Laugarren Plan Zuzentzaileak proiektatzen dituen lanen berri eman zien. Baina udaletan ez dute inolako zehaztapenik. Gauza argi bakarra da Izurdiaga eta A-15 autopistaren arteko loturako lanak uda akaberan eman nahi dituztela eta milioi bat euroko aurrekontua izan dena.

Kontseilariak aurreratu zuenez, Irurtzun-Ororbia errepidea (NA-7010) egokituko dute industria jarduera handiko eremuari beharrezko irisgarritasun mailak emateko. Bestetik, Iruñea-Irurtzun errepidean (N-240-A) eta Irurtzun-Lekunberri errepidean (NA-7500) hobekuntza lanak egiten dira. Burunda mendebaldeko hiru alkateek ez dakite ezer aipatu ziren lanen inguruan: Altsasun Zangituko zubi berria eraikitzea industrialdera sartzeko eta A-1 errepidetik hegoaldeko sarbidea eraberritzea. Eta Olatzagutia eta Ziordia artean bide berri bat egokitzea, A-1 errepidearen azpiko pasabidea handitzea barne. Olatzagutiko errotandaz ere berririk ez.





## Irurtzun aniztasuna dastatzeko plaza bihurtuko da

Bihar, 10:00etatik aurrera, Munduko Arrozak. Errezetak ezagutu, dastatu eta sukaldariak ezagutzeko aukera

### IRURTZUN

Sakanako Mankomunitateko Aniztartea kulturartekotasun zerbitzuko teknikari Begoña Zestau Baraibarrek esan duenez, "Irurtzun eltzetako erraldoi bat litzateke, zeinetan, kolore, zapore, testura eta jatorri anitzeko osagaiak biltzen diren. Denak elkar bilduta, aniztasunaren eltzean, guztion elkar ekintzei esker, eta osagai bakoitzak bere onena eskainiz, jakiak ontzira, Irurtzuna, botatzen dira, ondorio gozo eta anitza jaso arte". Zestauk gaineratu duenez, "norberak, bere premien arabera, ikusiko du "ondorio" horietatik "zein, zer, nola edo non jan edo jasoko duen". Larunbatean aniztasunaren eltze hori inoiz baino erreala goa izanen da: Maroko, Senegal, Atakondoa, Pikuxar, Irurtzango emakumeak, Moldavia, Errumania, Ukraina eta Elkarri Laguntza elkarteko sukaldariak mandarrak jarri eta jendaurrean arroza prestatuko dute larunbat goizean plazan.

Goiz-eguerdian plazatik pasatzen denak Irurtzunen aniztasunaren erakusle bat ikusiko du plazan. Haiengana hurbildu eta zertan eta nola ari diren ikusi

eta ezagutzeko aukera izanen dute gainera. "Horrela, herritarren arteko hurbilpena erraztea, eta horretaz, gozatzeko aukera eman nahi dugu", azaldu du Zestauk. Eta adin guztietako irurtzundarrak plazatik pasatzera eta goiza alaia elkarrekin partekatuzera eta aniztasunaren onurez gozatzera gonbidatu ditu. Ekimena despeditu ondoren, parte hartzaile guztiek elkarrekin bazkalduko dute, hala, elkarren arteko ezagutza handituko dute. 11. Munduko Arrozak Sakanako Mankomunitateko Aniztartea kulturartekotasun zerbitzuak, Irurtzango boluntario taldeak, Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuak eta Itxipuru taldeak antolatuko dute, Irurtzango Udalaren laguntzaz.

Bestalde, plazaren ondoan dagoen Pikuxar tabernak larunbatean Unai Beroiz, argazkilaria eta kazetariaren *Begirada ezberdin bat* argazki erakusketa mustuko du. Pobreziaren kontrako Nafarroako Sareak utzitako erakusketa horretan Beroizek nafarroako hainbat tokietako biztanleek bizitako bizipenak jaso ditu, "ohar gaitezen egin dezakeguna zer den".

### DUELA 25 URTE...



## Maikamikirri dantza ikuskizuna

Kontakizunen arabera Altsasuko sorgina zen Mainamikirri. Eta berau protagonista izan zuen ikuskizuna prestatu zuen Aitzindari euskal dantza taldeak 15. urteurrenean. Taldekideak dantza garaikidearekin ere ausartu ziren. Garagarriaren 7an Burunda frontoian mustu zuten, ikusleek hura bete zuten. Dantzari, musikari eta teknikarien artean 50 pertsonak lan egin zuten ikuskizuna gauzatzeko.

# "Arazoak ertz asko ditu; sei zehaztu ditugu"

**TASIO MERCHAN ETA JOKIN BEREZIARTU AGA ETA GKS-KO KIDEAK** Udal azpiegiturak "sozializatzeko" eskaerarekin, Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) eta Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) sinadura bilketari ekin diote

### ALTSASU

AGAKo eta GKS-ko udalari zuzendutako eskaerak babesteko sinadurak biltzen ari dira.

### Zerk bulkatu zaituzte udal azpiegituren "sozializazioa" eskatzera? Jokin.

Bizi dugun sistema kapitalistaren krisi testuinguruan kokatzen dugun arazoa ikusi dugu. Bizi baldintzak okerrera doaz, pobrezia gero eta zabalduago dagoen momentuan, udal azpiegiturretara iristeko zailtasun gehiago ditugu. Gure ondorioa da langile klasea gero eta kanporatuago sentitzen dela udal azpiegiturretatik. Haiek eskuratzeko erraztasunik ez du, esaterako, erabiltzeko ordaindu beharreko tasengatik. Horregatik garatu dugu udal azpiegiturak sozializatzeko dinamika.

### Zer da "sozializazioa"?

**Tasio.** Hitzak planteatzen dugun norabideari egiten dio erreferentzia. Trabak beharrean udal azpiegituren eskuratzeko unibertsala, doakoa eta kalitatezkoa izatea.

**J.** Hori bizitzaren esparru guztietara zabaldu beharko litzateke. **T.** Hori kontraesanean dago gaur egun udal azpiegituren eta, orokorrean, sistema kapitalistaren funtzionatzeko ekonomia errentagarritasunaren faktorearekin. Ondorioz, udalek prezio batzuk jarri behar dituzte errentagarritasun hori lortzeko.

### Zergatik sinadura bilketari?

**T.** GKS, AGA eta eragile politikoen artean zabaldua zegoen Gure Etxea eraikinaren erabileraren kontura udalarekin zeuden arazoak. Informazio kanpaina abiatu zen, kultur eragileekin egon, herrian zeuden arazoekin berri atera eta haiek gizarteratu genituen. Batzar ireki batean sortu zen sinadura bilketaren proposamena. Nolabait udala presionatzeko bide eraginkor gisa, eta herrian gaia gehiago sozializatzeko; jendearengana iristeko eta haren babesa lortzeko.



Tasio eta Jokin Gure Etxea udal eraikina atzean dutela.

## "HILAREN 17RA ARTE JASOKO DITUGU SINADURAK. MANIFESTAZIOA EGIN ETA EMANEN DITUGU"

### Sinatzaileak zer eskatuko du?

**J.** Arazoak ertz asko ditu, baina asanbladan sei puntu zehaztu genituen: udal azpiegiturak (kiroldegia, kultur gunea...) erabiltzea doakoa izatea. Bigarrenik, Gure Etxea eraikina erabilerara doakoa izatea eta biltzeko beharra duten eragileek partekatutako gelak izatea. Bestetik, errotaio aparkalekuen proiektua bertan behera uztea, zeren denbora muga pasaz gero ordaindu beharko litzateke. Kalearen pribatizazio hori ez da zilegi. Horrekin batera kirol eta kultur eragileek haien beharretara egokitutako espazioa izatea. Bاندak entseatzeko toki duina izatea, edo edozein musika taldek... Horrekin batera, auzolan taldearen materiala gordetzeko espazio duin bat izatea; gaur egun oso egoera txarrean dago. Eta, azkenik, goizetan ikasi ahal izateko,

liburutegiaren papera beteko duen espazio duin bat behar da. Orain jendea selektibitatea eta azterketekin dago eta halakorik ez dugu.

### Nola bilduko dituzue sinadurak?

**T.** Plazetan mahaiak jarri ditugu, azokara joan gara, banan-banan, dendetan utziko ditugu, gaztetxeko ostiraleko pintxo potean eta sare sozialen eta Internet bidez (<https://labur.eus/k4S3D>) sinatu daiteke ere. Horretaz aparte, jendearen parte hartzea bulkatzeko gitarau zabal antolatuko dugu hilaren 11rako; bazkaria eta kontzertuak izanen dira, eta sinadurak jasoko ditugu.

### Noiz arte ariko zarete?

**J.** Duela aste bat hasi ginen eta dagoeneko 300 ditugu (herenegun). Hilaren 17ra arte egonen gara horiek biltzen. Egun horretan *Udal azpiegiturak sozializatu* duen leloa deitu dugu. Han ahalik eta jende gehien batu nahi dugu. Ordurako sinadura kopuru handi bat izatea nahi dugu eta udalaren aurrean indar erakustaldia egin nahiko genuke.

**T.** Egun horretan sinadurak eramane eta "pilota udalaren teilatuan uztea". Haiek ikusiko dute zer egin.





Grabalariek Iruñean egindako batzarra. @ONAVARRA

## Haur eskoletako hezitzaile eta langileak hilabete greban

Ratioak jaitea, soldatak igotzea eta langileak gehitzea eskatzen dute. Aurrekontu aldaketa egitea eskatu dute

LAKUNTZA / ARBIZU / ALTSASU

Nafarroa 0-3 plataformak deitutako haur eskoletako mugagabeko grebak atzo hilabetea bete zuen. Azken hiru asteazkenetan Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariekin bildu dira plataformako ordezkariak. Aurreneko bileran plataformak bere eskaera zehatzak mahai gainean jarri zituen eta haiek ondoren datuekin lagundu ditu. Hezkuntza Departamentuak joan zen astean iragarri zuen proposamenaren arabera hezitzaileei %14 handituko litzaieke soldata. Baina plataformak nabarmendu du proposamen horren oinarrian 0-3ko "diru partidak tokiz aldatzen dira. Soldatak igotzen dira, baia Gizarte Segurantzako kotizazio saila eta ordezkapenena txikitzen dira. Beraz, dagoen gainkostua udalen bizkar geldituko litzateke berriz". Bestetik, salatu zuten hezkuntza laguntza bertan behera utzi izana.

Herenegun egindako bilkuran gobernuko ordezkariak ez zuten "inolako proposamenik" eraman. Departamentutik plataformako ordezkariak esan zuten egindako proposamena ez zela bideragarria. "Guk proposatzen ditugun aldaketek aurrekontu handiagora eskatzen dute eta aurtengo aurrekontuan horretarako dirurik ez dagoela eta aldaketa horiek egitea haien esku ez dagoela esan digute", azaldu du Eider Garde Mazkiaranek, plataformako kideak. Gaineratu duenez, "gure proposamena errealista da. Or-

dezkarri politikoa bat berak ere ez du ukatu arrazoiak dugunik, edo eskatzen ari garena legezkoa ez denik".

### Parlamentuari begira

Plataformako kideek PSNren diskurtsoan aldaketa sumatu dute aste honetan. "PSNren parlamentuaren bozeramaile Ramon Alzorrirek esan zuen konpromiso politikoa eta aurrekontuen inguruko behar zirela, egoerari konponbidea modu bateratuan emateko". Gardek gaineratu duenez, hezkuntzako ordezkariak jakinarazi zuten, "planteamendu hori behar zen tokian aipatu dute. Eta esan dute haien esku dagoen guztia eginen dutela gure proposamenera gerturatzeko. Mugimendua ahalik eta azkarren egin nahi dute. Baina horren inguruko inolako bermerik ez dago".

Plataformako kideen iritziz, "haur eskolek eskatzen duten aldaketak egin ahal izateko gaia Nafarroako Parlamentura iritsiko da. Nahikoa aurrekontu izateko botoen gehiengoa behar da. Horregatik uste dugu pilota Nafarroako Parlamentuan dagoela. Alderdiak bileretan esandakoa egia bada, ohiz kanpoko aurrekontu bat onartu daitekeela uste dugu", azaldu du Gardek. Aldaketak aurtengoa egin nahiko litzukete. Espero dute heldu den asterako proposamen zehatza eta diru bermea duena esku artean izatea. Bitartean, astelehenean eta ostegunetan Iruñean bilkurak eginen ari dira.

# 101.534,42 euroko inbertsioei bidea emanda

Altsasuko Udalak lau kale konponketa egin, haur eskolako patioako zorua hobetu, Lanen Zerbitzuari Linea Berdea aplikazioaren bidez gorabeheren berri emateko hainbat aurrekontu moldaketa onartu ditu

ALTSASU

Altsasuko Udalak aurtengoa lau kale hobetzeko lanak eginen ditu. Lan horietara 86.535,86 euro (BEZa barne) bideratu ditu. San Pedroko bidea kalearen 35 eta 43 zenbakien parean autoak aparkatzen dituzte, eta edukiontziak daude. Hura asfaltatzeko udalak 12.642,11 euro bideratu ditu (BEZa barne). Frontoiko zeharbideko 6. zenbakitik San Joan kalera saneanamendu sarea konponduko da kanalizazio berria eginez. Horren kostua 50.243,07 eurokoa da (BEZa barne). Hirugarrenik Intxaurrondo plazaren iparraldean euri ura hartzeko elementuak jarriko dira, euria egiten duenetan putzu handia sortzen baita. Horri konponbidea emateko 12.754,9 euro bideratu ditu udalak, (BEZa barne). Azkenik, Erkuden kalearen 12. zenbakiaren parean, 375 m<sup>2</sup>-ko azalera asfaltoa berrituko da 21.827,75 euroko inbertsio eginez (BEZa barne). Bestetik, zeharbideak margotu eta bestelako lanak egiteko udalak 20.000 euro aurreikusi ditu.

Bestalde, Altsasuko Udalak Txirinbulu haur eskolan hiru lan egiteko dirulaguntza eskatu zion Nafarroako Gobernuari, baina bakarerrako laguntza jaso du: patioan zoru irristagaitza jartzea, horrela urratu gutxiago



Nafarroa kalean zorua berritu zutenekoa. ARTXIBOA

sortzeko. Laguntza 2.364,82 eurokoa da, inbertsioa 10.983,56 eurokoa (BEZa barne). Horretaz aparte, altsasuarrek aurki Linea Berdea eskura izanen dute. Telefonoko aplikazio edo udalaren webgunean jarriko den atalaren bidez, herritarrek Lanen Zerbitzuari gorabeheren berri emateko aukera izanen dute. Horretara, udalak 4.015 euro (BEZa barne) bideratu ditu.

Azkenik, udalak abeltzaintza eta baso azpiegiturekin lotutako bi lan eman ditu. Batetik, Basomutur bidea edo Maibelo bidea

asfaltatzeko lanak Lakita, S.A. enpresari eman dizkio 53.290,18 euroren (BEZa kanpo) truke. Bestetik, Azunzarte eta Zezenagako itxitura despeditzeko kontratua Fermin Santesteban Elizalderi sinatu du, 11.737 euroren (BEZa barne) truke. Horretaz aparte, udalak Excavaciones Macia SM-ri emandi dio San Juan ermitaren inguruko hesia berritzeko kontratua eta bigarren zubiaren ondoan eta Otadiko bidean, Uz-kullu errekararen ondoan, bi hesi berri jartzeko kontratua 21.700 eurorengatik (BEZa kanpo).

## Etxebizitza lortzeko etxe hutsak birgaitzea aztergai dute

Hiru udalek jakin nahi dute herritarren artean interesik dagoen elkartu eta etxe batean hainbat bizitza egiteko

ARAKIL / UHARTE ARAKIL / ZIORDIA

Etxebizitza eskuratzeko arazoak eta herrietan hutsik dauden, handiak eta hondatzen ari diren etxeak kontuan izanik, Arakilgo, Uharte Arakilgo eta Ziordiko udalek proiektu pilotu bat abia-

razi nahi dute. Haren bidez hutsik dauden etxe handi horiek zaharberritu eta haietan hainbat etxebizitza sortu nahiko litzukete.

Beste pertsona batzuekin elkartu, etxe bat birgaitu eta etxebizitzak sortzeko interesa

luketen herritarrek baleude, udal bakoitzak bilera deituko luke, interesatuekin batera proiektua definitzeko. "Pultsua hartzeko bilerak lirake. Aurrera eginez gero proiektua definitu beharko litzateke", azaldu du Txomin Uharte Baletzenak, Uharte Arakilgo alkateak. Gaineratu duenez, "aurrera eginez gero udalek tramiteak erraztuko genituzte". Eta interesa duten herritarrei udalekin harremanetan jartzera gonbidatu ditu.



# "Ekimen interesgarriak sortu dituzte"

**SAIOA AMONDARAIN ARANBURU** IKASTAROKO ARDURADUNA

Aralarko santutegian ikastaro akaberako proiektuak aurkeztu zituzten jasangarritasun teknikari gisa trebatu direnak. Gobernua, Garalur, Plazaola turismo partzuergo, Sakanako Garapen Agentzia eta beste erakundeetako ordezkarien aurrean egin zuten

**Alfredo Alvaro Igoa** UHARTE ARAKIL  
Jasangarritasun teknikari prestakuntza programaren aurreneko edizioa Lizarraldean egin zen joan den urtean. Bigarren edizioak, aurtengoak, berriz, Bidasoa, Leurtza, Aralar, Plazaola eta Sakana eskualdeak hartu ditu. Prestakuntza apirilaren 20an

hasi eta astelehenean Aralarko santutegian despeditu zen, nahiz eta parte hartzaileek ebaluazio saio pare bat eginen dituzten orain. Prestakuntza ikastaroko saio gehienak Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratuan egin badituzte ere, ikastaroan izena eman dutenek

beste saio batzuk aipatu eskualdeetan izan dituzte.

Prestakuntza ikastaro hori kudeaketa jasangarria eta klima aldaketara egokitzea ditu helburu. Haren bidez, Bidasoa, Leurtza, Aralar, Plazaola eta Sakanako natur guneen eraginpeko eremuetara zabaldu nahi da bere

jarduera. Programak, lurralde horiek iraunkortasunaren eta klima aldaketara egokitzearen inguruan dituzten behar eta arazo errealetan jarri du arreta, eremu horietako kudeatzaileen eskutik lan eginez. Talde lanak, proiektuen garapenak edo erabiltzailearengan oinarritutako diseinuak, besteak beste, benetakako erronkei erantzun dieten proposamenak sortu dituzte parte hartzaileek.

**Zer da jasangarritasun teknikari izatea?**

Ditugun natur baliabideetan eta natur espazioetan lanean arituko den pertsona bat da. Horiek dinamizatuko dituen, eta espazio horietatik abiatuta lurraldean jasangarritasuna sustatuko duena. Beti ere, gizarte, ekonomia eta ingurumen loturak dituen jasangarritasuna. Espazio horien

inguruko agenteekin eta gestoreekin lanean ariko litzatekeen teknikaria da.

**Hori guztia izateko nola trebatzen duzue jendea?**

Erronka bat da hilabete eta erdian edo bi hilabete motzean prestakuntza egitea. Ikusten dugu pertsona aktibo eta dinamikoak behar ditugula. Nahiz eta kontzeptu tekniko edo teoriko batzuk lantzen joan, eginez ikasten dute; proiektuetan lanean. Lurraldeak dituen erronkak ezagututa, proiektuen bidez erronka horiei erantzuna emanez doaz gaitasunak hartzen edo hainbat kontzeptu lantzen: proiektu enpresa, komunikazioa, proiektuak eta ideiak aurrera nola eraman eta abar.

**Zenbatek osatu dute ikastaroa?**

Hamar parte hartzaile izan ditugu. Sakandar dezentez intere-

## Plazaola bide berderako proiektua

Juanjo Altuna Otamendi, Sandra Pineda Fleitas eta Sarabe Arakama Irigoien urdindarrak osatu du bide berdeari zuzendutako *Hayarte* egitasmoa. Hirukoteak honako erronka zuen: ikasturte oso baterako ekintza plan bat sortzea, ikasleak eta gazteak aktibatzeke gai dena, jardueretan parte har dezaten. Gazteen eta Plazaola natur bideko eta partzuergoko herrien arteko lotura sortuko duena, horrela, ingurumenaren natura eta kultura ondarearen balioa aitortzeko. Horretarako Nazio Batuen Erakundearen zortzi Garapen Jasangarriko Helbururi erreparatu zioten: osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza, genero berdintasuna, hiri eta komunitate jasangarriak, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, klimaren aldeko ekintza, lurreko ekosistemen bizitza eta helburuak lortzeko aliantzak.

Abiapuntu hori izanik, taldeak bost helburu jarri zituen. Batetik, Plazaola bide berdea lurraldearen ardatz gisa ikusgai jartzea. Bestetik, hango biztanleendako bide berdeak balio erantsia izatea. Aldi berean, gazteak programaren elementu nagusi gisa inplikatzeko. Horrekin batera, erabiltzaileak Plazaola bide berdeko eragile eraldatzaile bihurtzea. Eta, azkenik,



Sarabe azalpenak ematen, Sandra eta Juanjo ondoan dituela.

bertakoen eta bisitarien arteko elkarbizitza hobetzea, eguneroko erabileran bidean sortzen diren gatazkak gutxituz.

### Saerola

Izen hori duen hezkuntza komunitatea sortzea proposatu dute Altunak, Pindeak eta Arakamak. Gainera, irailetik garagartzarora doan Saerola egutegia proposatu dute. Hilabete bakoitzean hezkuntza komunitateak Plazaola bide berdearekin lotutako gai bat izanen luke aztergai. Hona ikasturterako proposatutako hamar gaiak: ura, pilota, lurra, musika, zaborra, bertako bizia, inguruko kondairak,

zentzumenak, hegaztiak eta Sareola bihurtzea.

Helburuak betetzeko bi jarduerak ere zehaztu dituzte. Alde batetik, Plazaolako mitologia deitu dutena, "istorio kontatuak, interpretatuak eta berreginak, belaunaldien arteko trakerako ekintza positiboak lortzeko eta herrien artean loturak sortzeko". Horrela, natur bideari balio erantsia eman eta gazteak inplikatzeko lortuko lukete. Beste aldetik, kontzertu akustikoak proposatu dituzte, horrela, Plazaola bide berdeko eta haren ondoan dauden natura espazioak musikariendako eszenatoki bihurtuz. Horrela aurreneko lau helburuak lortuko lirateke: bidea

lurraldearen ardatz izatea, bertakoe bideari balio erantsia ikustea, gazteak bustitzea eta erabiltzaileak bidearen eraldatzaile izatea.

### Ondorioak

Helburuak definitu, ideatu, zirriboratu eta haiek testatu ondoren, hirukoak bere lanari buruzko zortzi ondorio atera ditu. Lehenik, jarduerak horiek planifikatzeko hango gazteen eta eskola biztanleriaren beharrak ezagutzeko eta ulertzeko aukera eskaintzen duela. Aldi berean, Plazaolako gizarte eragileak eta arduradunek zer ekarpen egin dezaketen detektatzeko baliagarria dela uste dute.

Bigarrenik, "orain arte biztanleria gaztearendako arrotza den lurralde, fauna, landaredi eta materia gabeko ondare batean murgiltzeko aukera" da proiektua garatzea. Hirugarren ondorioa da egitasmoak belaunaldien arteko trukea egiteko aukera emanen lukeela, Plazaola bide berdea pasatzen diren herrien artean, herrien arteko loturak sortzeko.

Hirukotearen iritziz haiena "Sareola hezkuntza komunitatearen, biztanleriaren eta administrazio publikoaren ekarpenak eta proposamenak jasotzeko ekimen irekia da". Ondorioztatu dutenez, haiek landutako egitasmoak "Plazaola bide berdea lurraldearendako ordezkatzeko duen bizkarrezurra bihurtzeko eta sinergiak sortzeko aukera" eskaintzen du. Haien ustez, aurreikusitako ekimenak aurrera egiteko laguntza emanen duten boluntarioak beharko dira eta hori sustatuko du egitasmoak. Horrekin batera, jarduerak egiteko, eta elikatzeko, tokiko produktuak erabili tokiko ekoizleak ezagutaraztea lortzen da. Eta, azkenik, "Sareola izan daiteke bere herri edota jendeen historia edota nortasuna markatu zuen 19 tunel dituen trenbide zahar hori, gazteak, ikastetxeetako ikasleak eta familiak Plazaola bide berdera hurbiltzeko tresna".





Saioa Amondarain Aranburu.

sa azaldu zuten eta, azkenean, lauk eman zuten izena, Lakuntza, Urdiain, Altsasu eta Ziordikoak.

**Aztergai zegoen eremuaren barruan zeuden Aralar mendia eta Plazao-lako bide berdea. Bi espazio horie-**

**tan, zeren inguruan aritu dira parte hartzaileak?**

Aralar landu dutenen erronka zen jasangarritasunaren inguruko programa sortzea, ez bakarrik udan zentratua; desestacionalizazioa opatzea urtean zehar hainbat jarduerak egin jasangarritasuna sustatzeko, bai bertako biztanleei begira, baita bisitariei begira ere. Eta haien arteko elkarbizitza sustatzeko. Plazao-la bide berdearen kasuan erronka ikasturte osorako plana sortzea zen, ikasleen eta gazteen parte hartzea sustatuz.

**Hori nola gauzatu dute?**

Hainbat jarduera zehatzekin programazio bat sortu dute. Eki-  
men interesgarriak daude.

**Horiek nori daude zuzenduta?**

Espazio horiek hainbatek kudeatzen dituzte. Plazao-la turis-

mo partzuergoa arduratzen da izen bereko bide berdeaz. Aralar mendian Aralarko Elkartea, Sakanako Mankomunitatearekin elkarlanean. Haiekin elkarlanean egin dituzten proiektu horiek. Nafarroako Gobernuaren eta Lursarearen bitartez bulkatuko dituzte.

**Beraz, erakundeekin elkarlanean aritu dira.**

Bai. Oso beharrezkoa izan da lurraldeko lan hori: espazioen kudeatzaileekin lan egitea, ikastetxeekin eta abarrekin. Azkenean, proposamen errealak sortu, denen beharrei erantzuna emanen dietenak.

**Zeinek sustatu du ikastaroa?**

Nafarroa Ezagutu Sareak sustatu du prestakuntza. Elkarte horrek herrialdeko babestutako natur espazio eta ibilbideak kudeatzen dituzten erakundeak

elkartzen ditu. Hor Sakanako espazioak ere badaude: Plazao-lako bide berdea, Aralar, Urbasa-Andia eta Sakanako ibilbideak. Ikastaroaren kudeaketa Ruben Goñi Urrozek zuzentzen duen Nafarroako Gobernuaren Estrategia Proiektuen zuzendaritza eta Lursarearena da.

**Ikastaroa egin duten parte hartzaileek zer irtenbide izan ditzakete?**

Lan horiek, normalean, uda garairako izaten dira. Uda honetan proiektu pilotu batzuk egingen dira. Hemen inguruan pertsona bat egonen da lanean, prestakuntza proiektu horiek guztiak gauzatzeko. Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin horiek aurrera eramane da proiektu pilotu horren bidez. Helburua da hurrengo urteetan segitzea eta proiektuak jasangarritasuna izan dezala.

## Aralar mendirako proiektua

Hiru sakandarren artean landu zuten Aralarri buruzko egitasmoa: Beñat Torrente Armentia, Itziar Zudaire Salegi eta Amagoia Azpiroz Arrese, Lakuntza, Altsasu eta Ziordikoak hurrenez hurren. Honako erronkari egin behar zioten aurre: Aralarko eskaintza udara ez mugatzea eta hura desestacionalizatuko duen jarduera plan bat sortzea da, bertako elkarte, eskola eta hainbat eragile parte hartzaile aktibo izanik. Hori garatzeko hirukoteak Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriko Helburuetatik zortzi aukeratu zituen: osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza, genero berdintasuna, desberdintasunen murrizketa, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, klimaren aldeko ekintza, lurteko ekosistemen bizitza eta helburuak lortzeko aliantzak.

Horiek garbi izanda, proiektua garatzeko sei helburu zehaztu zituzten. Lehena, Aralar natur gunea eta bere ibilbideak ezagutaraztea. Bigarrena, urte osoko jarduera eskaintza prestatzea. Gainera, nahi zuten lurraldeko eragileak eraldatzaile izatea. Aldi berean, egitasmoarekin hirurek ingurumen hezkuntza hobetzea lortu nahi zuten. Horrekin batera,



Amagoia Azpiroz Arrese, Itziar Zudaire Salegi eta Beñat Torrente Armentia.

tradiziozko bizimoduari balioa aitortzea nahi zuten eta, azkenik, lotura sare bat sortzea bilatu dute.

### Bidea

Egitasmoa zehazteko garaian hiruko sakandarra 97 pertsonarekin jarri zen harremanetan. Horretarako bideak inkesta, talde bilera eta elkarriketak izan ziren. Ideiak sortzeko garaian, proiektuaren hirugarren fasean, eraginen panela sortu zuten eta hain jarduerak, ordezkakoak, nahiak, konpainia, mugak eta Aralarrendako nahiak jaso zituzten. Ideien errota martxan

jarrita 28 sortu zitzaizkien. Guztiekin ezin zuten aurrera egin eta haiek bahetu eta hamahirurekin gelditu ziren. Baina ideiak garatu ahala batzuk baztertu behar izan zituzten eta lantzeko hamar ideiarekin gelditu ziren.

Haien egokitasuna aztertzeko hemeretzi pertsonarekin testatu zituzten. Haiek gustuko zituzten eta ez zituzten jardunen berri eman zieten. Gainera prozesu horretan beste ideia bat sortu zitzaien. Azkenik, hamar jardueraz osatutako proposamena ondu dute: Nafarroako produktu jasagarrien dastaketa, Bizi Aralar,

Herensugearen itzulera ihes gela, Aralar hitzetik hortzera, Kontakizun laburren lehiaketa: Aralarko memoriak, Aralar eskuekin, Aralarren lotan, Aralar sukaldean, Nafarroa anitza eta Haizea super artzainaren komikia. Azken lauekin proiektu bana garatu dute.

### Landutakoak

Torrentek, Zudairek eta Azpirozek garatu duten ideiatako bat Aralarren lo egiteko aukera eskaintzen du, zehazki, artzain baten borda batean. Horrengatik ordaindu beharko litzateke. Eta, horrek aukera emanen luke borda horien mantentzean laguntzea. Bestetik, abeltzaintza eta artzaintzarekiko errespetua sustatzeko baliagarria izan daitekeela uste du hirukoak. Azkenik, Aralarko ondarea berreskuratzeko balioa aitortu diote ideia horri.

Garatu duten bigarren ideia Aralar sukaldean sukaldaritza jasagarriko ikastaroa da. Proposatzaileen arabera ikastaroak bi zati litzuzke. Aurrenekoa litzateke mikologian aditua den pertsona baten laguntzarekin mendian ibilbideak egin eta zizak edota bestelako basoko produktuak jasotzea. Ondoren, elkarrearen batean haiek bertako ekoizleen beste

produktuekin batera prestatuko lirateke. Mendiaren ustiapen jasagarria egingen litzateke horrela haien iritziz.

Hirugarren ideia Nafarroa anitza izeneko ikasle trukea da. Nafarroa Ezagutu Sarean dauden eremuetako ikastetxeetan ikasleek haiengandik gertu dagoen natur guneari buruzko ezaugarriak, balioak eta beste jasoko litzuzteke ikasleek ikasturtean. Eta, bukaeran, beste ikastetxe bateko ikasleendako gidarena egingen lukete. Lakuntza eta Arguedas jarri zituzten adibide gisa. Arguedaskoak Lakuntzara etorriko lirateke eta eskolako ikasleek Aralarren gida lanak egingen litzuzteke bisitariei mendiari buruzko argibideak emateko. Eta beste egun batean lakuntzarrek Arguedaskoei bisita bueltatu eta Bardeari buruzko jakintza jasoko lukete. Ekimen horren bidez, hirukotearen iritziz, Nafarroako natur gune ezagutarazten dira eta hainbat lurraldetako ikasleak saretzen dira. Azkenik, Super Artzaina komikia argitaratzea proposatu dute, txikienei Aralar ezagutarazteko.

Lanak despedituta, Torrentek, Zudairek eta Azpirozek uste dute helburuak bete dituztela. Eta lana egin eta gero ondorioztatu dute "biztanleriak Aralarren jarduerak egiteko gogoa" daukala, izan ere, "testeo fasean jarduerak harrera ona izan dute".



## AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 3

**ARBIZU Andra Mari Ikastolaren Artea Klean proiektuaren aurkezpena.**  
17:00etan, udaletxean.

**ALTSASU Tabú ikuskizuna.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasturte amaierako dantza emanaldia.**  
5 eta 13 urte bitarteko ikasleak.  
19:00etan, Iortia kultur gunean.

## LARUNBATA 4

**IRURTZUN Munduko Arrozak ekimena, zumurruren kontrako hausnarketarako txokoa, musika, haurren ekimenak eta sorpresak.**  
10:00etatik aurrera, Foru plazan.

**ITURMENDI Nafarroako oinez & hegan txapelketa.**  
Baiza Parapente taldeak antolatuta.  
10:30ean, herrian.

**ALTSASU I. Sakana Atletismo eguna: Jaurtiketak, erreleboak,**

**kross, hesiak, pilota, jabalina... 17 urtera arte. Dantzaleku**  
Sakana atlestimo taldeak eta Sakana Triatloi taldeak antolatuta.  
10:00etatik 13:00etara, Dantzalekuan.

**OLATZAGUTIA II. Auto kontzentrazioa.**  
Barandi tabernak antolatuta.  
11:00etatik 14:00etara, Sarasaten plazaren inguruan.

**ZIORDIA IX. Ziordiko Lasterketa Solidarioa. Ziordiko Running Taldeak antolatuta.**  
17:00etatik aurrera, plazan.

**ALTSASU Ikasturte amaierako ekimena: Atracciones Sanz, DJ Deathbass eta afaria.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU Erkudengo Ama Abesbatzaren Cantautores, canciones desde el alma kontzertua Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako abesbatzarekin eta Korazonistas ikastetxeko abesbatzarekin.**  
19:30ean, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 5

**ALTSASU Sakanako Itaiaren hirugarren asanblada irekia: Nola antolatuko gara indarkeria matxistari aurre egiteko?**  
17:00etan, gaztetxean.

**ALTSASU Euskal preso eta**

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNeko  
ARETO NAGUSIAN

**Cinco lobitos** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Igandea 5: 19:30

**El Comensal** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 9: 19:30

**iheslariak etxera elkarretaratzea.**  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 6

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ETXARRI ARANATZ Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuaren Maria Markotegi eta Nanoipuin literatur lehiaketaren sari banaketa.**  
18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU LAB Administrazioaren informazio batzarra: Ohiz kanpoko egonkortze prozesuari buruz eta lan finakoaren epaiei buruz hitz egiteko.**  
18:00etan, Iortia kultur gunean.


## ASTEARTEA 7

**IRURTZUN Osasun etxea zaindu Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak deituta.**  
16:30ean, kultur etxearen aurrean.



**ARBIZU Andra Mari Ikastolaren Artea Klean proiektuaren erakusketa.**  
Ekainaren 6tik 10era; 17:00etatik 20:00etara. Udaletxean.

**IRURTZUN Begirada ezberdin bat argazki erakusketa.**  
Ekainaren 4etik 26ra.  
Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 22:00etara, larunbat eta igandetan 09:00etatik 22:00etara.  
Pikuxarren.



## ZORION AGURRAK



**Zorionak Aitor!**  
Xalxero, lagun ta gazte jatorra, egunio ez die erdiyek eta beste haunbeste betetzen... Pote ta pintxo taldie.



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

**ERRENTAN EMAN**  
Irurtzungo Udalak igerilekuetako taberna alokatu nahi du udarako: Baldintzak udaletxean eska daitezke. Igerilekuko taberna eskuratu nahi duenak gaur, ostirala, aurkeztu beharko du eskaintza udaletxean bertan.

## LAN ESKAERA

**48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketari lan egiteko prest:** Telefono zenbakia 653 998 035.

## LAN ESKAINTZA

**Ergoienako Udalak Udako Euskaraz aisialdi eskaintzarako begiraleak kontratatu nahi ditu:** Dorrao eta Umanuko umei zuzendutako eskaintza garilarren 18tik agorrilarren 7ra izanen da, begiraleek bete beharreko bal-

dintzak: 18 urte baino gehiago izatea, aisialdiko begirale titulua edo hezkuntzarekin zerikusia duen titulua izatea eta euskalduna izatea. Interesa baduzu bidali zure curriculum info@ergoiena.com emailera garagarriaren 10a baino lehen.

**Ziordiko Udalak igerilekuetarako sorosle bila:** Udalak Udako igerileku sasoirako sorosleak kontratatu nahi ditu. Interesa dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoan izena eman beharko dute.

**Lakuntzako Udako jolasgunerako begiraleak behar dira:** Lakuntzako Udalak jakinarazi du jolasgunearen kudeaketa antolatuko duten begiraleak kontratatuko dituela. Horretan interesa dutenek curriculum eta jolasgunearen antolaketa eta

identifikatu erasoak? Bi saio izango dituzte Altsasun ekainaren 18an, 10:00etatik 18:00etara Gure etxea-ko eraikinean (izen ematea ekainaren 15ean amaitzen da). Izena emateak [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net) emailerara idatzi edo 660 384 328 / 628 328 593 ifnoetara deitu.

## SALGAI

**Erabili gabe dauden bi PVC lehio salgai:** Kristal hirukoitza dute eta 82ko profila. Neurriak 61x156 eta 61x151. Prezio negoziagarria. Deitu 628 506 283.

## IKASTAROAK

**Emakumeendako autodifentza ikastaroak:** Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Nola

identifikatu erasoak? Bi saio izango dituzte Altsasun ekainaren 18an, 10:00etatik 18:00etara Gure etxea-ko eraikinean (izen ematea ekainaren 15ean amaitzen da). Izena emateak [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net) emailerara idatzi edo 660 384 328 / 628 328 593 ifnoetara deitu.

**Altsasuko Kirol Eskoletan izen emateko epea:** ekainaren 7tik ekainaren 21era arte 948 012 012 ifnora deituz. Eskaintza Udaletxeak banatutako eskuorriari. Plaza mugatuak direnez Altsasun errolatutakoek lehentasuna izango dute, bigarren irizpidea inskripzioaren hurrenkeraren arabera. Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte irauten dute ikastaroek, ordainketa irailan egiten da. Informazioa, erreklamazioak

eta zerrendak Gure Etxean edo Udaletxean.

**Udako Gazte Agendako jardueretan izen emateko zabalik:** Udagazte (12-16 urte bitartekoentzat, uztailearen 11tik 22ra, 10:00-13:00 orduetara, prezioa barematuta), Ur festa goxoa (12 urtetik gorakoentzat, uztailearen 12an 21:00-00:00 doan), Hondartza ateraldia (12-30 urte bitartekoentzat uztailearen 27an, 10:30tik 19:30ra 3 euro ordaindu behar dira) eta Gu geu gazte (12-30 urtekoentzat, uztailearen 4tik 29ra, 17:00-20:00 orduetara, prezioa barematuta). Inskripzioak ekainaren 7tik 21era 948 012 012 ifnora deituz.

## OHARRAK

**Odol emateak Etxarri Aranatz:** Ekainaren 8an, 17:00etatik 20:30ra, [www.adona.es/ev](http://www.adona.es/ev) webgunean informazio gehiago.

**Odol emateak Uhartarakilen:** ekainaren 9an, 17:00etatik 20:30ra, Aralar Mendi Elkartearen [www.adona.es/ev](http://www.adona.es/ev) webgunean informazio gehiago.

**Altsasuko Aisiz Blai ekaineko kanpaina:** Behin behineko onartuen paperezko zerrenda Ludotekako eraikinean dago ikusgai. Plazak gairiditu direnez baremoa aplikatzeko dokumentazioa aurrerz aurre aurkeztu behar da ekainaren 2tik 9ra, Gure Etxean 09:00etatik 13:00etara edo Ludotekaren 09:00etatik 15:00etara.

**Lakuntzako musika eskolan izena emateko epea zabalik:** Ikasketak hauetan eman daitezke izena garagarriaren 21a baino lehen: musika eta mugimendua, musika hizkuntza, akordeoia, trikitixa, bateria, gitarrak, pianoa, tronpeta, txistua, tuba, panderoa,

gaita, fanfarrea, bombardino eta tronboia.

**Lakuntza Udako Euskaraz kanpainen izen emateko zabalik:** Hiru urtetik aurrerako umei zuzenduta dago, ekainaren 27tik uztailearen 29ra burutuko da. Saiok astegunetan 10:00etatik 13:00etara izanen dira Kultur etxean. Lakuntzan errolatuta seme-alaba bakarra bada 70 euro ordainduko dira, bi seme-alaba badira 35 euro bakoitzak, eta hiru seme-alaben kasuan 10 euro bakoitzak. Errolatuta ez dauden haurrek 100 euro ordainduko dituzte. Izena ematea [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orriaren bitartez egin daitezke ekainaren 14a baino lehen.

**Trafiko sentsibilizazio kanpaina Altsasuko Zelandi eskola inguruan:** Nafarroako Gobernuaren bizikletaren erabilerrera zuzendutako

kanpainen barruan ekainaren 20ra arte In-txaurren kalea 8:30etik 8:50era itxita egongo da. Eskolara autoarekin joan nahi dutenek Zelandi kiroldegiko aparkalekuan utzi beharko dute kotxea. 3-6 urteko haurrek erabiltzen duten atearren parean aparkatzea debekatua egongo da. Gurasoak eta ikasleak seguru joan ahal izateko sentsibilizazio kanpaina.

**Etxarri Aranazko igerilekuak zabalik:** 10:00etatik 20:00etarako orduetara. Uda guztirako bartela eskuratu nahi dutenek Etxarri kanpainen [www.campingetxarri.com](http://www.campingetxarri.com) webgunearen bitartez erosi beharko dute. Jubilatuek NANA aurkeztu beharko dute sarrera dohainik izateko. Baina txanoa eramatea daztergotzko da.

**Gazteen Jaibuserako baimena:** Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago, auto istripuak sahisteko. Lehen bidaia maiztaren 7an egingen ditu turmendin eta Altsasun festa baita. Jaki-rik, 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egiten da eta Jaibusera igotzeko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute beraien eremuko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuan, adingabearren argazki bat eramanaz eta inprimaki bat betez. Irurtzungo OGZ udal-etxeko lehen solairuan dago, ifnoa 948 600 694, Etxarri Aranazko Kultur etxeko bigarren solairuan, ifnoa 948 460 752 eta Altsasuko Garbitoki egoitzako azken solairuan, telefonoa 948 467 662.

[iragarki@guaixe.eus](http://iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)



OROIGARRIA

**Joseba Jimenez Marin**  
II. urteurrena  
(2020ko ekainaren 6an hil zen)

Zukin bizi izendu diauna gozamen itzela, atseginez bizitako bizitza.  
Elkartuko gan esperuen

**Gurasuek eta aneye**  
Etxarri Aranatz

ESKELA

**Joseba Jimenez Marin**  
II. urteurrena

Zuu bizipoza  
zuu irrifarra  
zuu umorie  
zuu laguntasune  
ez ttugu sekule ahaztuko Jime


**ZR**  
Etxarri Aranatz, 2021eko ekainaren 6an




**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

OROIGARRIA



**Yasone Ortega Delgado**  
III. urteurrena



Gure artean ez zaitugun arren,  
zure maitasunak gure bihotzetan jarraitzen du.  
Gurekin egongo zara beti.

**Etxekoak - Familia**  
Lakuntza

#### JAIOTZAK

- **Amalur Montes Alberca**, maiatzaren 26an Lakuntzan
- **Saja El Bounane El Fakar**, maiatzaren 28an Arbizun

#### HERIOTZAK

- **Maria Bernarda Valencia Nuñez**, maiatzaren 25ean Altsasun
- **Maria Nieves Sarasibar Garralda**, maiatzaren 26an Lakuntzan
- **Maria Milagros Ormazabal Goenaga**, maiatzaren 28an Altsasun
- **Sor Blanca Arbizu Aranguren**, maiatzaren 30ean Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70  
📧 @Grupolrache  
📘 Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)


# Atletismoarekin hitzordua Sakanan

**ATLETISMOA** Larunbat goizean I. Sakanako Atletismo Eguna hartuko du Dantzalekuk, eta arratsaldean Ziordiko Herri Lasterketa Solidarioaren txanda izango da. Etxarri Aranatzek borobilduko du jardunaldia, Binakako Lasterketarekin

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Korrikalari sakandarrek hitzordu garrantzitsuak dituzte asteburuan. Batetik, Sakanako Atletismo Eguna antolatu dute lehen aldiz Dantzaleku Sakana atletismo klubak eta Sakana Triatloi Taldeak. Larunbatean izango da, 10:00etatik 13:00etara, Altsasuko Dantzalekuko atletismo pistan eta inguruetan. Kros eta pista lasterketak, erreleboak, hesiak, luzera jauziak, jaurtiketak, jabalina... 17 urte bitarteko haur eta gaztetxoek modalitate ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute, eta atletismo eskolako denboraldia despeditzeko jardunaldi ederra izango da.

**Ziordian, lasterketak eta martxa** Arratsaldean Ziordiak hartuko du lekukoa, IX. Ziordiko Lasterketa Solidarioa jokatu baita, Ziordiko Running Taldeak antolatutako proba herrikoia. Haurren lasterketak 17:00etan hasiko dira, 2 kilometroko oinezko martxa solidarioa 17:30ean eta 6,8 kilometroko helduen lasterketa 18:00etan, herri gunean antolatutako ibilbidean.

Lasterketan izena ematearekin eta salduko dituzten zozketa txartelekin jasoko den guztia hainbat ekimen solidario laguntzera bideratuko da: GNA01 gai-



Asier Estarriaga, podiumean. UTZITAKOIA

## Estarriaga hirugarren Lasterbidean

Kanpezuk euskal presoan aldeko Lasterbidean proba hartu zuen larunbatean (9,2 km). Ehunka pertsonak hartu zuten parte egun osoko festa erraldoia bilakatu zen lasterketan, primerako giroan. Asier Estarriaga etxarriarra hirugarren sailkatu zen.

xotasun ultra arraroa duen Markel Carmona haur urnietarraren aldeko Aurrera Markelekin elkarteak, Paris 365 jantoki soziala, KMSxELA Fundazio, Rett Sindromearen Elkarteak, Dravet Fundazioa eta beste. Bukarera 57 sari zozketatuko dira, sari banaketa egingo da eta auzatea izanen da, musikaz lagundutakoa.

Larunbatean, 15:30etik aurrera eman daiteke izena, Ziordiko frontoian. Haurrek 2 kilo elikagai eraman beharko dituzte eta helduek 4 kilo elikagai, Paris 365 jantokira bideratuko direnak.

Bukatzeko, igandean, 17:30ean, Andra Mari ikastolaren Binakako Txapelketa jokatu da (ikus 4. orria).

## Lagun Arteak nagusi Etxarrin

**FUTBOLA** Igandean haurren mailako futbol torneo antolatu zuen Etxarri Aranatz futbol taldeak San Donato zelaian. Altsasuk, Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzko bi taldek hartu zuten parte giro onean. Etxarri Aranatz B-k eta Lagun Arteak jokatu zuten finala, lakuntzarrek irabazitakoa. Hirugarren Etxarri A izan zen, eta Altsasu laugarren.



ETXARRI ARANATZ FUTBOL TALDEA



Joan zen urteko triatloi campusa. Aurten Arbizun izanen da.

## Mankomunitateak udako kirol eskaintza aurkeztu du

**KIROLDEGIA** Futbol, triatloi eta multikirol campusak antolatu dituzte, eta surf ikastaroa, familian

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udako kirol eskaintzaren berri eman du. Futbol eta triatloi campusek segida izanen dute, baita surf ikastaroak ere, baina aldaketekin. Aurten, nobedade gisa, multikirol campusa eskainiko da.

### Surfa, familian

Ekimen goiztiarrena surfa izango da. Ekainaren 18an eta 19an surf ikastaroa familian prestatu du Mank-ek, Zarauzko Moor surf eskolan. Egutero 1:50 orduko saioa izango da, hastapenekoak, eta ordutegia azken astean zehaztuko da, itsas mareen arabera izango baita. Prezioa 40 eurokoa da, eta bertan jasota dago bi egunetako autobusa, irakasleak, taulak, neoprenoak, dutxak, aseguruak... Familia bakoitza bere seme-alabez arduratu beharko da. Izena ematea ekainaren 10era arte dago zabalik.

### Multikirola, nobedadea

Multikirol campusa ekainaren 27tik uztailearen 1era izanen da, 10:00etatik 13:00etara, 8 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilei eskainia, Izurdiagan eta Irurtzunen. Egun bakoitzean kirol bat landuko da: errugbia, futbola, piraguismoa, orientazioa eta igeriketa. Prezioa 35 eurokoa da, eta ekainaren 17ra arte eman daiteke izena.

### Futbola, Dantzalekun

Futboleko campusak hartuko du lekukoa segidan. Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian izanen da,

10:00etatik 13:00etara, eta Maalen Beraza eta Aitor Lara izango dira monitorea. Bi txanda izanen dira. Lehenengoa uztailearen 4tik 8ra, 2010, 2011 eta 2012 urtean jaiotako neska-mutilendako, eta bigarrena uztailearen 11tik 15era, 2007an, 2008an eta 2009an jaiotako neska-mutilendako. Futbolaren inguruko teoria eta praktika uztartuko dira, eta egunean irteerak egingo dira. Izena ematea zabalik dago ekainaren 24 arte.

### Triatloia, Arbizun

Triatloi campusean aldaketa egongo da, aurten Arbizun izango baita, Altsasun beharrean. Aurten Altsasuko Zelandiko igerileku estalia itxita egongo da uztailean eta abuztuan, eta horregatik campusa Arbizun egingo da. Uztailearen 18tik 29ra izanen da, astelehenetik ostiralera, bi astez, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:30era. 8 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilek eman dezakete izena atletismoa, igeriketa eta txirringularitza elkartzen dituen jardueran. Sakanako Mankomunitateak antolatutako duen Sakanako Haur Triatloirako prestakuntza ederra izango da. Prezioa 40 eurokoa da eta uztailearen 8ra arte eman daiteke izena.

Mank-eko campus guztiak euskaraz izango dira, eta norbaitek ez badu ulertzen gaztelaniaz zuzenduko zaio berari. Izena emateko bi bide daude: WhatsApp (608 697 550 telefonoa) eta posta elektronikoa ([sakana.kirola2@gmail.com](mailto:sakana.kirola2@gmail.com)).





UTZITAKOA

## Final bat jokatzera handia delako

**PILOTA** Buruz Buruko finala galtzeagatik "triste, penaz eta amorruez" zegoen Joseba Ezkurdia, "ezin izan dudalako nire jokoa egin", baina Unai Laso txapelketa zoriondu zuen, "onena izan delako eta merezi duelako". Arbizuarrek prestatutako omenaldi beroan pozik hartu zuen parte, eskertuta. Final bat ez da egunero jokatzeko, eta hori ospatu beharra dago.



UTZITAKOA

## Zumbathoi koloretsua Arbizun

**ZUMBA** Larunbatean doinu, koreografiak eta dantzak bete zen Arbizuko kiroldegia, Noelia Fundazioaren aldeko Arbizuko Zumbathoi solidarioan. Haurren lasterketak, eta bost monitorek gidatutako zumba master classak harrera ona izan zuten. 300 sarrera baino gehiago saldu zirela adierazi dute antolatzaileek, Noelia Fundazioaren alde. Egun osoko festa izan zen.



Naiara Diez Fernandez, jasotako opariekin eta CBASKeko ikasturte bukaerako festan parte hartu zuten gaztetxoekin.

# Naiara Diez, pozik etxean jasotako omenaldiarekin

**SASKIBALOA** CBASKek omenaldi polita egin zion etxean trebatutako Naiara Diez saskibaloia jokalaririk profesional ohiari. Altsasuarrak bere lehendabiziko saskibaloia urteak gogoan izan zituen eta hau "bere etxea" dela azpimarratu zuen

**A. Alvaro / M. Betelu** ALTSASU  
Altsasuko CBASK saskibaloia taldeak ikasturte bukaerako festa egin zuen larunbatean Zelandin. Ekitaldia klubean trebatu eta saskibaloia jokalaririk profesional handia izandako Naiara Diez Fernandez omentzeko probestu zuen CBASKek. "Kiroldegi honetan nire lehengo saskibaloia urteak egin nituen, asko gainera. Entrenamendu asko eta partida asko jokatu izan ditut hemen, eta niretako beti etxea da hau. Hona etortzeak eta omenaldi txikia jasotzeak poztasun handia ematen dit. Polita da, altsasuarra naizelako eta nire jendea hemen dagoelako; hori da aberasgarria" azaldu zuen Diezek, hunki-

tuta. Lagun ugari zituen alboan, "nire lagunak, nire familia eta nire lagunen ume txikiak".

Diezek joan zen urtean utzi zuen saskibaloia profesionala, Loitek Gernika taldeko kapitain zela, bere ibilbidearen gorenean. Momentuz ez du saskibaloia faltan botatzen, "baina saskibaloia munduan jarraituko dut ziur. Ez dakit entrenatzaile moduan izango den, edo jokalaririk gisa beste modu batera... ume txikiei zehozker erakutsi ahal badiet, hor egongo naiz laguntzeko" argi du. "Profesional mailan presio asko duzu eta urte asko dira; uzteko erabakia oso ongi pentsatuta nuen, eta erabaki oso ona izan da" aitortu zuen.

CBASKeko neska-mutil asko zeuden Zelandin, "eta niretako oso polita da hau horrela ikustea. Euren adinarekin ni hemen egon nintzen lagunekin gozatzen. Orain ni naiz omenaldi jaso dudana, baina agian urte batzuk barru beraiek izango dira aitortza jasoko dutenak" azaldu zuen. Haurrekin argazkiak atera zituen, sinadurak eskatu zituzten... Diez erreferentea da, eta herrikoa. "Erreferente baino gehiago, herrikoa. Ez da erraza ailegatu naizen tokira heltzea, baina gauzak ongi eginez gero, posible da. Mezu hori eman nahi diet" azaldu zuen. Guaixeri eskerrak eman zituzten, "nire ibilbidean alboan egon zaretelako". Ez horregatik.

## PILOTA Irurtzun klubak finalean ordezkari zitu zuten

XXX. Irurtzun Pilota Txapelketa azken txanpan murgildu da. Nafarroako afizionatuen mailako txapelketa ezaguneko finalerdiak daude jokoan. Aurtengo nobedadea da txapelketa taldeka edo klubean arteka jokatzeko ari dela, lau eta erdian eta binaka. Irurtzun klubean oso kontentua egon daitezke, finalerdietara iritsi diren lau taldeetatik hiru Irurtzun

klubekoak direlako, eta final handirako ordezkari zitu zuten dituelako.

Atzo Irurtzun A eta Zugarralde klubek jokatu zuten lehen finalerdia. Retegi Bik (Irurtzun) Antso izan zuen aurkari eta Ongay-Bergera Elizalde-Alduntzinen kontra aritu ziren. Gaurko finalerdian Irurtzun Bk eta Irurtzun Dk jokatu dute, 19:00etan, Bi Aizpen. Lau eta erdian, Nazabal eta Armendariz lehiatu dira, eta, binaka, Olaetxea-Lazkoz eta Murgiondo-Apezetxea.

## FUTBOLA Lagun Arteak liderraren kontra despidituko du liga

Asteburu honetan despidituko da Lehen Maila Autonomikoko 2021/2022 liga. Lakuntzako Lagun Arteak ezin izan dio kategoriari eutsi, sailkapenean hamaikagarrena baita (40 puntu), jaitsiera postuetan, salbaziorako aukerarik gabe. Larunbatean Zarramonza liderra (59 puntu) izango du aurkari, 18:00etan Arronitzen jokatu den partidaren.





Felipe Troyano, behean, ezkerretik bigarrena, Barranka Txirrindularitza Taldeko taldekideekin. BARRANKA T.T.

# "Altsasu BTT Zeharkaldia egun berezia izango da"

**FELIPE TROYANO PEREZ** ALTSASU BTT ZEHARKALDIKO ARDURADUNA

**MENDI TXIRRINDULARITZA** Ekainaren 12an izanen den Altsasu BTT Zeharkaldiaren 25. edizioa antolatzen ari da Barranka Txirrindularitza Taldea, "gozamen hutsa" izanen dena

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Badaude zenbaki batzuk besteak bezalakoak ez direla. Esannahi gehiago dutenak. Horietako bat da 25 zenbakia. Egunero ez baitira 25 edizio betetzen. Hori da Barranka Txirrindulari Taldeak antolatzen duen Altsasu BTT Zeharkaldiaren kasua, aurten edizio berezia izanen duela. Felipe Troyano Perez da arduraduna, eta guztia antolatzeko praktik bete lan dabil.

**Altsasuko BTT Zeharkaldiak 25. edizioa du aurten. Data borobila.**

Zenbaki bat da, baina gurea Nafarroako BTT zeharkaldi zaharrena da, eta data berezia da guretako. Urteurrena ospatu nahi dugu.

**Proba batzuk sona dute, eta bana-goa Altsasuko BTT Zeharkaldia biker**

**"AURTENGOA IBILBIDE BEREZIENA IZANGO DA. LEKU ZORAGARRIETAN IBILIKO DIRA, GOZAMEN HUTSA"**

**askok gorritz margotzen duten hitzordu horietako bat dela.**

Jende asko etortzen da urtero, ez dute galtzen. Gurean ongi pasatzen dutela esaten digute. Mendi txirrindularitza proba batzuk oso luzeak dira, desnibel handikoak, gogorrak, "extreme" delakoak, baina gurea ez da horrelakoa. Gurea ez da proba lehiakorra, jende guztia ibiltzeko modukoa da. Ez bazaude sasoi betean, ibilbide laburra aukera dezakezu. Gure helburua da zeharkaldi bat antolatzeko nahi duten guztiek

egiteko. Ez da puntako kirolari-errendako proba. Ibilbide luzeak 46 km eta 1000 metro inguruko desnibela du. Ez da gutxi, baina ez da mugako proba bat.

**Horregatik etortzen da jende asko Altsasu BTTra? Edo hemen ditugun paisaia zoragarriengatik?**

Uste dut bi gauzengatik dela. Alde batetik proba normala delako, ez delako elite mailako zeharkaldi bat, eta, bestalde, gure ingurua zoragarria delako. Sekulako mendiak ditugu, zuhaitz ikusgarriak, dena berdea dago... Mendiak eta paisajeak bereziak dira, eta tarteka lokatzean sartzen gara, gustuko duguna.

**Zein izan da probaren parte hartze errekorra?**

2006 urtean 1.302 partaide izan zituen Altsasuko BTT Zeharkaldiak. Urte hartan zeharkaldia egin nuen, ez nengoen antolakuntzan sartuta, baina hura antolatzeko eromena izango zen, seguru. Duela gutxi arte, probaren egunean bertan izena emateko aukera zegoen, eta jendeak azken unera arte itxaroten zuen, eguraldiak zer egingo ote zuen ikusteko. Aurten, parte hartze muga jarri dugu, gehienez 700 bikerrendako tokia, eta horrela kopuru horretarako prest egongo gara.

**Ekainaren 10era arte eman daiteke izena. Nola doa?**

Oso ongi, 600 txirrindularik eman dute izena. Beraz, martxa honetan 700 tokiak azkar beteko dira ([www.barrankatt.com](http://www.barrankatt.com)).

**Azken bi urteetako geldialdiaren ondoren jendea gogotsuago dagoela uste duzu?**

Uste dut txirrindulariak sekulako gogoekin daudela. Gainera, jende asko azken bi urtetan hasi da bizikletan ibiltzen, pandemia urtetan, eta biker gehiago daude. Guri halako probak egitea gusatzatzen zaigu: lagunekin elkartu, hitz egin, planak egin, bizikletan ibili, txoko politak ezagutu...

**Nondik etortzen dira bikerrak?**

Gehienak nafarrak dira, eta gipuzkoarrak. Arabatik jende dezentetako etortzen da, Bizkaiatik gutxiago, eta gero Zaragozatik, Errioxatik... bertako klubetatik kopuru bat etortzen da.

**"TXIRRINDULARI GUZTIAK PLAZATIK BATERA ATERATZEN DIRELA IKUSTEA GOZAMEN HUTSA DA"**

**Kamiseta berezia egin duzue aurten.**

Urtero kamiseta bat egiten dugu, baina aurtengoa berezia da, kalitate hobea, 25. urteurrenengatik. Altsasuko BTT Zeharkaldiko parte hartzaile guztiek opari poltsa jasotzen dute bukaeran: Lacturale esnea, Arbizu txistorra eta Katealde pateia. Horretaz gain, astelehena baino lehen izena eman zutenek, kamisetaren neurria aukera zezaketen eta kamiseta jasoko dute opari. Beranduago izena ematen dutenek, kamisetaren bat soberan gelditzen bada, hori hartuko dute, baina ez dute ziurtatua.

**Urtero ibilbidean aldaketa egiten duzue. Aurten hiru ibilbide daude, luzea (46 km, 939 m. desnibela), ertaina (42 km, 685 m.) eta laburra (36 km, 510 m.).**

Bai, hirurak Altsasuko plazatik abiatuko dira. Iñigo Aritza ikastolara joko dute, handik Santaluzia sakanera, autobia azpitik tunel bat pasako dute eta Leku Ona parean aterako dira. Autobia paretik tobogan batzuk gaintuko dituzte Sorozarretaraino. Handik bigarren zubira joko dute eta Ibarrea industrialdera helduko dira. Kuartelaren ondotik, Ameziatik bide bat hartuko dute, Cementosen atzetik. Horrela, Olazti eta Ziordia arteko Batueko iturriraino iritsiko dira, toki oso polita, eta Aizkibil dermiotik Ziordira jaitsiko dira. Ziordiko Txipudiko parketik pasatuta, Olaztik bidea hartuko dute, eta bertatik Urdiainera joko dute, bertako parkeko hornidura gunean atsedena hartzeko. Ondoren Iturmendira iritsiko dira.

**Iturmendin banatzen da ibilbidea.**

Ibilbide laburrekoek Urdiaingo igerilekuen bidea hartuko dute eta handik Altsasura joko dute, helmugara. Aldiz, ibilbide ertainekoek eta luzeekoek Iturmendiko beheko basora egingo dute, Urdiaingo mugaraino. Ibilbide luzeak Intsusburu ingurura jarraituko du eta gero Bernoa galtzadatik jaisten da, izugarri polita dena. Tarte hori oso teknikoa da, zaila. Bizikleta asko kontrolatu behar da, harriak daude, xenda txikiak, makurrak... eta gero Urdiaingo igerilekuetatik Altsasuko helmugara joaten da. Ibilbide ertainekoek Intsusburu pareko igoera hori ez dute egingo, zuzenean Urdiaingo igerilekuetara jaitsiko dira.

**Beraz, denetatik izango duzue: xendak, partzelariak, mendia, galtzadak, tarteka errepidea...**



Ibilbide ederra da, denetatik due-  
na. Orain arte inoiz pasa ez garen  
tokietara hurbilduko da.

#### Noiz markatuko duzue ibilbidea?

Aurreko astean egiten dugu, be-  
raz, asteburu honetan. Probaren  
egunean Barranka taldeko hi-  
ruzpalau kide atzean doaz, sei-  
naleak, txartelak, eta bestelakoak  
jasotzen. Bikerrak pasatu berri,  
dena garbi uzten dugu, zeharkal-  
dia izan ez balitz bezala.

#### Halako proba batek antolaketa han- dia du. Noiz hasten zarete prestatzen?

Urrian biltzen gara ibilbidea  
erabakitzeke. Izan ere, urtea bu-  
katu baino lehen baimenak es-  
katu behar dira Nafarroako Go-  
bernuan. Ibilbidea Nafarroatik  
ateratzen bada, esaterako Gipuz-  
koan edo Araban sartzen bagara,  
baimen hori Espainiako Gober-  
nua eskatu behar da, Madril.  
Bestalde, trafikora jo behar da,  
Foralei jakinarazi, anbulantziak  
lotu, ospitaleak ere abisatu...  
protokoloak bete. Urtarrila edo  
otsaila aldean hasten gara zehar-  
kaldiko ardurak banatzen. Ha-  
marren bat aritzen gara.

#### Zeharkaldiko egunean askoz ere gehiago ariko zarete lanean.

Bai. Dorsal banaketa, hornidu-  
ra guneak, kontrolak, bideguru-  
tzeak... jende asko behar da.  
Ostiraletik hasten gara, materia-  
la biltzen. Larunbatean opari  
poltsak prestatzen ditugu eta  
zeharkaldiaren egunean 6:00etan  
hasten gara guztia muntatzen.

#### Hornidura guneetan gelak eta ha- lakoak eskaintzen dituzue?

Ez. Gelak eta barra energetikoak  
pisu gutxi baina asko eskaintzen  
duten elikadurak dira. Asko ne-  
katuz gero, gel bat hartu eta be-  
rehala erreperatzen zara.  
Baina gure probaren helburua  
ez da zeharkaldia topera egitea.  
Hornidura ere gure zeharkaldi-  
aren zatia da: geldialdia egin, tra-  
go eta mokadutxo bat hartu,  
jendearekin gustura egon, dis-  
frutatzen. Beraz, gurean ohiko  
elikagaiak daude. Amayak pas-  
teltxo txiki batzuk egin zizkigun  
azken edizioan, bikainak zirenak,  
baina aurten ezingo dituzte egin,  
eta pena da, baina croissantak,  
hostopilak eta halakoak eskatu  
ditugu. Helmugan, pintxoak, ga-  
ragardoa, ardoa eta freskagarriak  
izaten dira ere. Helmugara iris-  
terakoan kaña eta pintxoa pri-  
meran sartzen dira.

#### Zenbat denbora behar da zeharkal- dia egiteko?

Luzeena azkarrenek bi orduren  
bueltan egiten dute. Hauek mo-



Txirrindulariak 2019ko Altsasu Zeharkaldiari ekiteko prest. ARTXIBOA

torra bezala doaz. Zeharkaldia  
zabaltzen motor bat joaten da eta  
esaten digu atzera begira joaten  
dela, harrapatuko duten beldur  
(kar, kar). Gehienek hiru ordu  
eta erdi edo lau ordu pasatxo  
behar izaten dituzte.

#### Zein adinetako txirrindulariek par- te hartzen dute?

15 urtetik gorakoek parte har-  
dezakete, eta denetatik egoten  
da, adin guztietako jendea. Emak-  
ume oso gutxi, eta hori pena  
handia da. Azkenekoan hogeiren  
bat izan ziren, oso neska gutxi.  
Ea aurten gehiago animatzen  
diren.

#### Barranka taldekoek astebururo irteera egiten duzue. Txintxo-txin- toak zarete.

Bai, egia da, eta oso pozik goaz.  
Larunbatean talde mistoa derit-  
zogunarekin ateratzen gara,  
gizonak eta emakumeak, lasaia-  
go. Mendi bizikletarekin maila  
normala duen edozein pertsona  
etor daiteke, nahi izanez gero.  
Igandean BTT taldea deritzogu-  
narekin ateratzen gara, azkarra-  
go. Gutxienez 7 kide eta gehienez  
14 ateratzen gara, eguraldiaren  
arabera. Eta gero errepedikeo tal-  
dea dugu. Hauek larunbatero  
egiten dute irteera, 100 kilometro  
ingurukoa. Hiru taldeak aktibo  
gaude, astebururo ateratzen gara.  
**Erreleboa baduzue? Hor dago Na-  
gore Gonzalez gaztea.**

Bai, 15 urte ditu eta oso ongi ibil-  
tzen da. Gustura ibiltzen gara  
berarekin. Gazte batzuk badaude,  
baina egia da gehienak beterranoak  
garela, 40 urtetik gorakoak. Ongi  
legoke jende animatzea, ateak  
zabal zabal ditugu. 120 kide  
inguru gara, eta baliabide onak  
ditugu, tartean irteerak egiteko  
bi furgoneta. Hilero kanpora ir-  
teera bat egiten dugu talde mis-  
toarekin, eta baita errepedikeok  
ere. Giro bikaina dugu eta bizi-

kletarekin hasteko gure taldea  
oso ongi dago.

#### Talde batean egotea bermea da. Garrantzitsua da bizikletan taldean ateratzea, zer gerta.

Talde batekin ateratzen bazara,  
nagikeria gutxiago duzu aterat-  
zeko, eta edozein arazo baduzu  
-gurpila zulatu dela, katea izo-  
rratu dela...- denok hor gaude  
laguntzeko eta konpontzeko.  
Norbait mantsoago badao, gai-  
nontzekoek zehaztutako bidegu-  
rutzeetan itxarongo dugu eta  
guztiok elkartuko gara. Beti elkar  
zaintzen dugu. Eta, jakina, ahal  
bada hamaiketako egiten dugu  
taberna batean, giro ederrean.  
Hamaiketako txikia, gero itzuli  
behar delako (kar, kar).

#### 25 urteurrena dela eta, taldekiek ospakizunen bat egingo duzue?

Altsasu BTT Zeharkaldia bukatu  
eta guztia biltzen dugunean, bo-  
luntario guztiekin bazkari ederra  
egiteko asmoa dugu, merezitakoa.  
**Zergatik animatuko zenuke jendea  
zeharkaldian aritzera?**

Egun berezia izango delako. Leku  
zoragarrietatik ibiliko garela.  
Aurtengoa ibilbide bereziena da,  
zalantzarik gabe.

#### Ekainaren 12an, 9:00etan abiatuko da bikerren festa.

Plazatik jende guztia batera ate-  
ratzen ikustea gozamen hutsa  
da. Nik ezin dut zeharkaldia egin,  
lanean egongo naizelako, baina  
hala ere polita da. Bestalde, jen-  
dearen prestutasuna eskertu  
nahiko nuke. Laguntza eskatu  
eta beti baiezkoa da jasotzen du-  
gun erantzuna, eta gugana zertan  
lagundu dezaketen eskaintzera  
jende asko etortzen da. Hori han-  
dia da. Gure proba eta paisaiak  
bereziak dira, eta jendea ere bai.  
**Guztia ongi atera dadila.**

Eskerririk asko, hala espero dugu.  
Guretako egun hau gozamen hu-  
tsa da, festa polita.

## Mikel Uncillaren itzulera, garaipenarekin

**TXIRRINDULARITZA** Erradioko haustura gaindituta, Cendea de Galarko Sari Nagusiko esprintean azkarrena izan zen

Maiatzaren 7an Lazkaomendiko  
Proban erorikoa izan zuen Sa-  
kana Group-Aralar taldeko Mikel  
Uncillak eta erradioan fisura  
edo haustura izan zuen. Ordu-  
tik osatzen egon da etxarriarra, eta  
berriki itzuli da errepediera. La-  
runbatean juniorren XIX. Cendea  
de Galar Sari Nagusia jokatu zen  
(73 km), Eskirotsen hasi eta Ar-  
legin despeditutakoa, eta bertan  
aritu zen Uncilla. Eta nola. Las-  
terketa mugituan Lizarte talde-  
ko Iñaki Ordokirekin batera  
iritsi zen helmugara, baina es-  
print lehiatuan Uncilla izan zen  
azkarrena (1:59:37). Bere talde-  
kide Adrian Martinez lakuntza-  
rra laugarren sartu zen, 10 se-  
gundora.

Lesioaren ondotik pedal kolpe  
bikaina izaten jarraitzen duela  
erakutsi zuen Uncillak. Bere  
hirugarren garaipena lortu du,  
Villatuertako lasterketaren eta



Mikel Uncilla, esprintean. ARALAR

Amorebietako Udaberriko Kla-  
sikoaren atzetik.

Gainontzeko sakandarrei dago-  
kionez, Manex Zufiaurre 13.  
iritsi zen, Aritz Oiarbide 17., Jon  
Koldobika Urrusolo 27., Mikel  
Regil 28., Asier Etxeberria 31.  
eta Ander Villalobos 35.



MARTIN EARLY

## Iker Gomez hordagoa Murietan

**TXIRRINDULARITZA** Segurako eta Segoviako garaipen atzetik,  
Quesos Albeniz-Burunda taldeko Iker Gomez Lopez de Goikoetxea  
altsasuarrak hirugarren garaipena lortu zuen igandean Murietako kadeteen  
lasterketan (62 km), helmugara bakarrik iritsita (1:37:52). Bere taldekide  
Ekain Imaz zazpigarren sartu zen. Beste sakandarrak txukun aritu ziren.





Aristizabal, Sakanako Herri Kirol Egunean.

## AIZKORA Amets Aristizabal, urrezko txapelaren bila

Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen den Amets Aristizabal Vicente urdiaindarrak Urrezko Banakako Aizkolarari Txapelketako Gaztetxoan 19 urtez azpiko finala jokatu du igandean, 12:00etan, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Aristizabalek Zarateko Isidro Velasco eta Hernaniko Igoi Pikabea izango ditu aurkari. 45 ontzako hiru enbor erdibitu beharko dituzte.



Parapentistak, Sakanan. ARTXIBOA

## PARAPENTE A Oinez eta Hegan txapelketa Iturmendin

Baiza Parapente taldeak antolatuta, Hike and Fly txapelketako saioa hartuko du Iturmendik larunbatean, Nafarroako Oinez eta Hegan Txapelketa, 10:30etik aurrera. Modalitate honetan parapentea bizkarrean dutela mendira oinez igo beharko dira parte hartzaileak, eta tontoretik hegan egin. Hike and Fly probek esfortzua, estrategia eta hegaldi libre jorratzen dituzte.

# Jose Antonio Salgadoren 19 Zegama-Aizkorriak

**MENDI LASTERKETAK** Altsasuko korrikalari beteranoak Zegama-Aizkorri mendi maratoiko edizio guztietan hartu du parte, 19 edizioetan, meritu handiz. Aurtengo edizioiko lehen sakandarra Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra izan zen

## Maider Betelu Ganboa SAKANA

Beti ikusgarria den Zegama-Aizkorri mendi maratoia agian ikusgarriagoa izan zen aurten, munduko korrikalari onenek apurtu zituzten markak hobetzea ez baita erraza izan. Eguraldia lagun milaka pertsona hurbildu ziren Aratzera, Sancti Spiritura, Urbiara, Andraitza eta maratoiko txoko guztietara proban parte hartu zuten mendizaleak animatzera. Probak Golden Trail World Series 2022 txapelketa mustu zuen, eta espezialista onenak bildu ziren.

Kilian Jornet zen izar nagusia eta faboritoak ez zuen huts egin. Bere hamargarren Zegama-Aizkorri irabaztea lortu zuen, 2017an Stian Angermund-Vikek ezarritako errekorra 8 minututan apurtuz (3:36:40), harrigarria. "Aurtengo Zegama zirraragarria izan da" azaldu zuen kataluniarrek. 2:51 minutu atera zizkion Davide Magnini 24 urteko italiarrari. Emakumezkoetan 2014ko Maite Maioraren errekorra gainditu zuen Herbeheretako Nienke Brinkmanek, 17 minututan (4:16:43). Ikaragarria. Maude Mathys 10 minutura sartu zen (4:26:03), eta Sara Alonso hirugarren izan zen (4:26:40).

## Sakandarrak

Sakandarren artean, Zegaman bizi den Beñat Katarain Razkin izan zen azkarrena (4:27:58), helmugan 53. postuan sartu eta gero. Fran Araña Ieregi arbizuarra 304. sartu zen (6:41:58) eta Jose Antonio Salgado beterano altsasuarra 369. (7:27:57). Asier Leiza Razkinek, Aritz Munarrik eta David Oroz Alonsok ezin izan zuten proba bukatu.

Jose Antonio Salgadoren kasua berezia da, altsasuar beteranoak Zegama-Aizkorri maratoiko edizio guztietan parte hartu duela, proba 2002an hasi zenetik orduetik jokatu diren 19 edizioetan, azkeneko bi urtetan ez bai-



Jose Antonio Salgado altsasuarra, igandean, Zegama-Aizkorri. JOKIN LARDIZABAL

## SALGADOREN MERITUA HANDIA DA, URTE GUZTIETAN PARTE HARTZEA EZ BAITA EDONOLAKOA

ta jokatu. Hirugarren ediziotik, Munduko Kopa izan zenetik, Zegamak gora egin duela dio altsasuarrek, eta orduetik gorakada etengabekoa izan dela. Zaleak "ikusgarriak" direla dio. Bere denborarik onena 3. edizioan lortu zuen (5:00:30 ordu). Aurten bere 40. denboraldia beteko du korrika, 60 urte ditu, eta sasoi betean dago.

## Zabala eta Jimenez Km Bertikalean

Ostiralean 8. Zegama-Aizkorri Km Bertikala jokatu zen Arriaunditik Iraulera (3 km, 1.015 desnibel +). Korrikalariak lainoa izan zuten bidaide eta Oriol Cardona (32:59) eta Emilie Forsberg (42:26) izan ziren txapeldun handiak. Marina Zabala lakuntzarra emakumezkoen 18. postuan sailkatu zen (52:49) eta Fidel Jimenez etxarriarra gizonezkoen 106. postuan (53:14).

## Lakuntza-Aralar, azken egunak

Ekainaren 12an Zabalarte klubak antolatutako Lakuntza-Aralar mendi lasterketa jokatu da, 9:30ean. Aurten ibilbide motza antolatzearen aldeko hautua egin dute. Lakuntzatik abiatuta, Guardetxera (1.035 m) eta Laruzgainera (1.103 m) igo eta Etxaaltzetatik (909 m) eta Arangundik helmugara jaitsiko den ibilbideak 13,3 km eta 640 m positiboko desnibela ditu. Korrikalariak abiatu bezain pronto, 9:45ean ibilbide bera egiteko oinezko martxa antolatu du lehenengoz Zabalartek. Bi probatan izena emateko azken egunak dira hauek, ekainaren 8an itxiko baita aukera ([www.lakuntza-aralar.com](http://www.lakuntza-aralar.com)).

## Lakuntzako Elkartasun Erronka

Larunbatean, 12:00etan, hiru taldek -Urko R.-Asier P., Aritz P.-Iñaki A. eta Adur K.-Asier G.- Ondatz eta Arangun lotuko dituzte, *Etxera bidea gertu* lelopean jokatu den Lakuntzako Elkartasun Erronkan. Zein bikotek egingo duen denborarik onena asmatu beharko dute plazan bilduko direnak.

## Mendiko beste protagonistak



ANDER ERICE TORNARIA SAKANA BIZIRIK

## Erice, Euskal Trails txapelduna Baigorri

Sakana Bizirik Mendi Kirol talde sakandarreko Ander Erice Tornaria 133 kilometro luze eta gogor dituen Euskal Trails ultra trail gogorra irabazi zuen asteburuan Baigorri. Korrikalari arbizuarrak ostiralean hartu zuen irteera eta larunbatean bakar bakarrik iritsi zen ikuslezk mukuruz zegoen Baigorriko helmugara, txalo zaparrada artean, hamasei ordu eta erdi luzeko lasterketa osatu eta gero (16:30:45).



GOIKOETXEA / GASANZ DANTZALEKU SAKANA

## Altsasuarren podiuma Andosillan

Igandean II. Andosilla Traila jokatu zen, Navartrail Nafarroako Koparako baliagarria, eta Dantzaleku Sakana klubekoak bikain aritu ziren. Proba luzean (19 km, 800 m desnibel +) Arruizko Aimar Azpirozek aurrea hartu eta bakarrik heldu zen helmugara (1:28:11), Eukeni Goikoetxea altsasuarri ia bi minutu ateraz (1:30:16). Podiuma Jabi Gasanzek osatu zuen (1:33:43), eta Asier Ansa hamargarren sartu zen (1:46:09).



# Musika eskolen eta bandaren arteko zubia

Sakanako Haize Berriak Bandak musika ikasleendako proiektu berria jarri du martxan: Haize Txikiak Banda. Aste batez ikasleak trebatuko dituzte, eta uztailaren 1ean lehenengo emanaldia egingen dute Irurtzunen.

**Erkuden Ruiz Barroso** SAKANA

Haize Berriak Bandak 25 urte bete ditu, eta urtean zehar hainbat ekimen eta proiektu jarri ditu martxan, eta horietako bat banda txikia martxan jartzea izanen da: "Bandan beti gabilza musikarien bila. Sakanan musika eskolak izanik, bidea errazten du, eta beti egon gara banda txiki bat egiteko ideiarekin", azaldu du Jasone Etxebeste Haize Berriak bandako kideak eta Irurtzungo musika eskolako klarinete irakasleak. "Musikariak hamaika edo hamabi urterekin bandara sartzen dira eta beraiendako oso arrotza izan daiteke". Horregatik, zubi "hori" bilatu nahian egon dira.

Urteurrena dela baliatuz, beraz, proiektuarekin aurrera egitea erabaki dute eta ekainaren azkenengo astean Haize Txikiak Banda lehenengo aldiz bilduko da, Irurtzunen. "Ez dugu nahi astero-asteroko banda bat. Haurrek badute izugarritzko karga, eta orduan larunbatero entseatzera joan behar badira, ez du funtzionatuko. Orduan lau egunetan, goizez, musika egiten ariko dira eta hortik bi kontzertu aterako ditugu". Euskaldiko Gazte Orkestran, esaterako, lan egiteko modu hori egiten ari direla azaldu du musikariak.

Sakana osoko proiektu bat da, "gure asmoa ibiltaria izatea da". Urtero bi proiektu egitea aurreikusten dute; ekainean eta gabonetan, haurrek klaserik ez dutenean. 10:00etatik 13:00etara musika jotzen ariko dira, eta ondoren bi kontzertu emanen dituzte. Uztailaren 1ean eta 3an, Irurtzunen eta Etxarri Aranatzen, hurrenez hurren, izanen dira lehenengo emanaldiak. Irurtzunen ondoren Haize Berriak Bandak joko du ere. Gabonetan Lakuntzan eta Altsasun egitea aurreikusi dute; "parte hartu duten udalak, ekonomikoki lagundu dutenak".



Haize Berriak Banda 2021eko San Juan egunean kalejiran. ARTXIBOA

## UZTAILAREN 1EAN EGINEN DU HAIZE TXIKIAK BANDAK LEHENENGO EMANALDIA

Instrumentuak jo ez ezik, saio horietan jokoak eta musikaren inguruan ariketak ere egitea nahi dute. "Gauza asko egin daitezke; gure asmoa ez da karga gehiago ematea, ez musika eskolei ez haurrei. Egun horietan egin daitekeena. Materiala ere proposa izango da".

### Instrumentuak

Duela hilabete bat inguru Haize Berriak Bandak Sakanako musika eskolekin kontzertua eman zuten. Ekainean egingen duten emanaldirako abesti horiek egingen dituztela jakinarazi du irakasleak. Lehenengo proiektu honetarako ez dute baldintzarik jarri. Musika eskolan egotea. Banda bat denez bandako instrumentuak izango dira, haizeko metalezko eta egurrezko instrumentuak eta perkusioa. Dena dela, "denak gonbidatuta daude".

Izena emateko musika eskoletako irakasleen bidez formulario bat bidali dute, eta norbaitek proiektuan parte hartzeko interesa badu [haizetxikiak@gmail.com](mailto:haizetxikiak@gmail.com) epostara mezu bat bidali dezake.

"Kulturalki haurrei beraien tokia eman nahi diegu. Askotan instrumentuak jotzen ikasten dute, eta ez dute aukera gehiago bide emateko". Musika eskoletan taldeak osatzen badira ere, bandan aritzeko infrastruktura nahikorik ez dagoela azaldu du Etxebestek. Denborarekin eta musikariaren arabera, Haize Txikiak Bandatik Haize Berriak Bandara salto egin dezakete. "Musika eskolekin egin genuen kontzertu horren helburua ez zen gero haurrak bandara etorzea, baina beti norbait pasatzen da. Kontzertu horren ondoren bi edo hiru sartu dira. Haiak bere burua prest ikusi behar dute". Oso banda gaztea izan arren, zortzi urteko haur batek ez du lekua aurkituko, "baina hamalau edo hamabost urterekin sartzen dira". Dena dela, bi bandak proiektu desberdinak dira. "Bakoitzak bere zuzendariak izango ditu".



UTZITAKOIA

## Igone Augustoren bi dominak

Maiatzaren 28an eta 29an Tarragonan egindako Orbe Katalunia Dantza Txapelketan dantzari altsasuarrak dantzari errebelazio eta urrezko domina sariak irabazi zituen. Lehenengo aldia zen Igone Augusto Fernandez txapelketa batean bakarlarit aritzen zela, eta "disfrutatzera" atera zen. Jazz modalitateko Youth-Absolut kategorian lehiatu zen.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

## Betileak

Betileen maskara eskuila mota asko daude: maskara okertuak, zuzenak, silikonazkoak... hainbeste, ez baitakigu bakoitzak zertarako balio duen! Gure betileei eman nahi diegun akaberaren arabera aukeratu behar da, ez baita gauza bera begirada bolumenarekin edo oso betile luzeekin nabarmendu nahi izatea.

**Bolumena lortu nahi baduzu:** Betile handi eta lodiak nahi baditugu, pinu itxurako edo mota estandarreko eskuila bat aukeratu behar dugu. Eskuila mota honek gure betileak lodiagoak sentiaraziko ditu eta itxuraz kantitatean ere hazi egingo dira. Eskuila zenbat eta lodiagoa izan, orduan eta bolumen handiagoa lortuko dugu. Pinu itxurako eskuilek punta oinarria baino askoz estuagoa dutenez, begiaren kanpoko aldean efektua handitzeko aukera ematen digu, eta horrek gure begirada askoz gehiago nabarmenduko du. Betile motzak dituztenei gomendatzen diegu, bereziki.

**Luzera:** Betile luzeagoak lortzea interesatzen bazaigu, gure aukerarik onena zepilu motz eta zuzenena izango da.

Eskuila mota horrek edonora iristea errazten du, eta, horrela, produktua oinarritik ondo banatu eta puntak luzatzen ditugu, gure betileek milimetro batzuk irabaziz.

**Betile kizkurrak:** Eskuila kurbatuzko maskara bat, begiradari bizia eta mugimendua emateko. Eskuila mota horrek betileak kizkurtzen laguntzen du, eta horrek kizkurtzailea ordezka dezake. Egin itzazu oinarritik, eta gehitu produktuaren kantitate handiena eremu horretan, gero puntetaraino luzatzeko. Adi! Betile kizkurtzaileak zuen apainmahaietatik kendu beharko zenituzkete.

**Betileak, zehaztasunez:** Zehaztasun handiagorako, punta biribileko eskuilak daude. Agian ezezagunenak, forma biribileko eskuila hauek perfektuak dira produktua zatika aplikatzeko, prozesuari zehaztasuna gehituz. Haien tamainaz eta formaz balia gaitzke betileak errazago manipulatzeko, nahi dugun norabidean orraztuz eta nahi dugun moduan bereiziz.

**Betile bereziak:** Itsatsita geratzen diren betileak bereizteko, erabili betiletarako eskuila berezi bat. Orrazi txiki bat bezalakoa da, eta oso baliagarria izango zaigu maskara oraindik heze dagoenean orrazteko.

# "Bakoitzak badu istorioren bat; zer esan edo zer ez esan"

**IZASKUN ETXEBERRIA ZUFIAURRE IDAZLEA**

'Esaten ez duen guztian' liburua aurkeztu du altsasuarrak, hamar narrazioz edo ipuinez osatutako bilduma. Protagonistak herritar "xumeak" dira.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Izaskun Etxeberria Zufiaurre idazle altsasuarrak *Esaten ez den guztian* liburua argitaratu du. Hamar narrazio bildu ditu, ipuin bilduma bat da, bi ataletan banatuta: Ferrila eta Eserlekuak. Liburuan pertsonaia asko agertzen dira eta gehienek ibilibidea egiten dute liburuan zehar. Gainera, Tere Irastorzak hitzaurrean esaten duen bezala, "filmetan eta liburuetan deskribatutako inguruaren alboan bizi eta protagonismoa izan ez duten pertsonaia dira" Etxeberriaren ipuinetako protagonistak. Ekainaren 10ean, datorren ostiralean, 18:30ean, liburuaren aurkezpena egingen du Iortia kultur gunean. Parte hartuko duten herritar guztiei "nire eskerrik beroenak" eman die idazleak.

**Nola sortu zen 'Esaten ez den guztian' idazteko ideia?**

Ez zen pentsatutako zerbait izan; ez nuen argitaratzeko asmorik. Narrazioak sortzen joan nintzen, eta uste dut liburuan agertzen diren narrazio guztiak literatur lehiaketetara aurkeztu ditudala. Gehienak, saridunak edo aipamenak lortutakoak dira eta, egia esateko, Bergarako Idazle Eskolan hasi nintzela han bertan agindutako lan bat izan zen idatzi nuen liburuaren lehendabiziko narrazioa. Hortik aurrera, horrela sortzen joan dira. Idazle eskolako zu-

zendaria den Tere Irastorzak animatu ninduen lan bilduma bat egiteko, narrazio bilduma hau osatzeko eta, azkenean, argitaratu dut. Harikalduz eta josten joan naiz.

**Nola aukeratu zenituen narrazioak?**

Kronologikoki ordenatuta daude, eta, orduan, lehenengo narrazioa 1908an abiatzen da. Gainontzekoak horrelaxe, kronologikoki, aurrera doaz. Azkenekoa 2010. urtekoa da, inguru horretan, beraz, ia ehun urteko denboran girotuta daude. Horiek guztiak lehenengo atalean daude, Ferril atalean, eta bigarren atala motzagoa da eta intimoagoa da, Eserlekuak. **Narrazioak sortzen zenituenen, jarraipen bat ematen zenien? Oso-tasun bat?**

Lehendabizikoarekin, eta ez da kronologikoki sortu nuen lehendabizikoa, nolabaiteko unibertso bat sortu nuen: Altsuondo da. Altsuondo horretan giroturik bestean sortzen joan ziren. Hori da iturria da, eta unibertso horretan girotuz eta denboran zehar mugituz, joan dira besteak unibertso horretan sortzen.

**Unibertso bat sortu duzu, Altsuonden antza du?**

Unibertso hori Altsuondo da. Urdiainen Altsasu Altsu esaten da, beraz, Altsasu ondoan; Altsuondo badugu Urdiain, Altsasu eta Gipuzkoako muga, Alza-

niako mendiak. Hau da Altsuondo. Tarte horretan dagoena. Hau da unibertso txikia, eta, aldi berean, handia.

**Zenbat denboraz aritu zara liburuaren osatzen?**

Patxadaz aritu naiz. Nire asmoa ez zen argitaratzearena, orduan, narrazioak sortzen joan nintzen, idazten, eta bilduma aspalditxo egin zegoen. Etengabe argitaratu behar nuela esaten zidaten, animatzen ninduten, eta azkenean baiezkoa eman nuen. Gero pandemia etorri zen, eta gaur egun arte.

**Nolakoa izan da liburuaren sortzeko prozesua?**

Baiezkoa eman ondoren, pandemia etorri zen. Pandemiaren ondoren Pamiela argitaletxeak baiezkoa eman zidan, baina bazuten, pandemiagatik hain zuzen ere, atzeratutako lana eta inpresoretan dokumentuak ilaran gelditzen diren bezala, horrela gelditu zen liburuaren ere. Baina, dagoeneko, kalean da.

**Liburuan pertsonaia asko agertzen dira, normalean protagonistak ez direnak. Zer esan nahi du horrek?**

Pertsonaia asko dira, egia da, baina denak herritar xumeak dira. Denak dira inguruko jendea, eta arrazoi desberdinengatik hemendik joan-etorrian ibili diren pertsonak. Benetakoak eta fikziozkoak. Batzuk etorri behar izan ziren, beste batzuk joan behar izan ziren. Baina jende xumea dira, herritar xumeak dira; horiek

osaten dute herria, horiek dira herria.

**Baina atzetik istorio bat dutenak?**

Bai, mundu guztiak dauka istorioaren bat. Agian batzuen abentura modukoren bat da, beste batzuen etxetik edo herritik atera ez diren istorioak dira. Baina bakoitzak badu bere bizitza eta mundu guztiak badu zer esan edo zer ez esan. Pertsonaia guztiak badute esan ezinezkoen bat. Arrazoi desberdinengatik esan ez duten zerbait. Batzuk ametsak, ilusioak edo nahiak direlako, beste batzuk lotsagatik, beste batzuek beldurragatik eta isilarazioak izan direlako. Arrazoi desberdinengatik, baita gizakien arteko harremanetan batzuetan komunikazio falta egoten delako ere. Orduan, denek badute esan ezinezko hori.

**Baina irakurleek ezin esan horiek ezagutuko dituzte?**

Nik uste dut irakurleek deskribatutako badago zer pentsatua.

**Zertan inspiratu zara pertsonaia horiek egiteko?**

Pertsonaia batzuk benetakoak dira, eta beste batzuk fikziozkoak dira. Benetako batzuk histori-

**"NARRAZIOAK SORTZEN HASI NINTZEN, ETA HARIKALTUZ ETA JOSIZ JOAN NAIZ"**

**"PERTSONAIA ASKO DIRA, BAINA DENAK HERRITAR XUMEAK DIRA, INGURUKO JENDEA"**

**"PERTSONAIA BATZUK BENETAKOAK DIRA, ETA BESTE PERTSONAIA BATZUK FIKZIOZKOAK"**

**"MENDE BATEAN ALDAKETA IZUGARRIAK IZAN DIRA; BIDAIA BAT IZAN DA"**

koak dira eta horretarako guttira, nola ez, dokumentatu naiz. Beste batzuk fikziozkoak dira, baina garaian garaiko bizimoduak eta ezaugarriak dituztenak.

**Dokumentazio lana nolakoa izan da?**

Liburuetan eta Interneten asko saltseatu dut. Internet gaur egun sekulako informazio iturria da. Istorio asko aurretik ere banekizkien, inguruko kontuak banekizkien entzundakoak edo bizitutakoak direlako, eta beste batzuk liburuetan eta Interneten begiratu ditut.

**Mende bateko tarte batean mugitu zara, nola izan garai horietan murgiltzea?**

Bidaia izan da. Hori ere bidaia bat izan da. Interesgarria izan da eta askotan pentsatu izan duguna eta askotan esan dudana konfirmatu dut: gure aurreko belaunaldiekin alderatuta, gure gurasoen edo aitonen garaiko bizimoduarekin konparatuz, hogeigarren mendearen hasieratik honuntza, aldaketa izugarriak izan dira. Izugarria zentzu guztietan. Orduan, nolabait aldaketa mordo horietatik bidaia egin dut, bizi egin ditut. Benetan izugarria izan da. Garaiko testuren bat irakurtzen nuen edo argazki edo irudi zahar bat ikusten nuen, eta hortik giroa sortzen nuen.

**Nolakoa da zure idazteko prozesua?**

Badut nire txokoa, eta horrek laguntzen du. Inspirazioaz hitz egin ohi da, baina esaten dute ere inspirazioak lanean harrapatu zaitzala. Niri irakurtzea asko gustatzen zait, informazioa bilatzea, deskubritzea, eta horretan nik neuk imaginatu eta irudikatzen dut. Nire unibertso hori egiten dut. Interesatzen zait edo asko gustatzen zait zentzumen guztiak martxan jartzea, eta horrekin ukitu egiten dut, usaindu, dastatu eta idatzi behar dudana guztia ezagutzen dut.

**Hamar narrazio dira, bi zatitan banatuta. Ba al dago hari eroalerik?**

Narrazio laburrak, ipuinak, eta, adibidez, Tere Irastorzak berak hitzaurrea idatzi du eta aipatzen du zergatik ez den nobela bat. Nobelak dira, baina nobela izan liteke. Narrazioak dira eta bakoitza independentea da, baina guztiak badute hari bat. Aparte irakur daitezke edo denak jarraian, baina guztiak hasi eta bukatu egiten dira hari horren





Izaskun Etxeberria Zufiaurre idazle altsasuarra.

barruan. Pertsonaia batzuk desagertu egiten dira, eta beste batzuk liburu osoan zehar segitzen dute. Liburuaren ibilbidean gelditzen den horietan bat, lehenengo ataleko pertsonaia bat da, bigarren zatian protagonista izango dena. Orduan, protagonismoa emakume batek hartzen du. Bere bizitzan zehar edo bere bizitza markatu zuten eserleku guztien bitartez bere bizitza ere kontatzen du.

**Azalean trenbide baten bidegurutzea agertzen da. Zergatik toki hori? Zergatik irudi hori?**

Irudi hori nahi nuen narrazio guztiak trenbide eta errepidean girotuta daudelako. Pertsonaia guztien joan-etorrian dabilta, bakoitzak bere arrazoiengatik, eta lehendabiziko narrazioak mende hasieratik trenak izan zuen garrantziagatik trenez dabilta. Urteak pasa ahala errepideak hartu zuen indarra, eta orduan kamioien erroak trenen txistua ordezkatu zuen. Orduan, lehendabiziko narrazioetan pertsonaiak trenez dabilta, joan-etorrian, eta tren geltokia da elkartzeko gunea.

**"BI ZATI DAUDE: 'FERRIL', MARDULAGOA DENA, ETA 'ESERLEKUAK', INTIMOAGOA"**

**"NARRAZIO GUZTIAK TRENBIDE ETA ERREPIDEAN GIROTUTA DAUDE"**

Argazkia nik egin nuen eta argitaletxean erakutsi nuen eta baiezkoa eman zidaten. Lehenengo narrazioan emakume bat tren geltokira iristen da, eta pareta bat ikusten du aurrean. Hori erakutsi nahi nuen. Altsa-suko tren geltokitik lehen zegoen makina depositarako trenbide bidegurutzea da. Orain makina depositoa itxita dago, baina hor dago. Irudian trenbidea ikusten da, tren geltokia, Urbasa...

**Beraz, joan-etorriak, bidaiak, tren geltokia, tren, errepidea, kamioiak eta eserlekuak dira narrazioen gai nagusiak.**

Eta maletak. Horretan ere adibidez denboraren poderioz maletak nola aldatu diren fisikoki eta maleta bakoitzaren helburua. Ez da gauza bera garai batean hemendik Amerikara joandako baten maleta edo Espainiako hegoaldeetik honutza etorritako baten maleta edo guk noiznahi asteburu pasatzera hartzen dugun maleta, eta horietako maleta bakoitzak barruan zer daraman. Zer eramaten den, zer uzten den...

**Donostian aurkeztu zenuenean, egun horietan Eloy Zufiaurre Gariaren gorpua aurkitu zuten hiriko hilerrian. Zertan konektatzen dira?**

Kasualitatea izan zen. Maiatzaren 19an, osteguna, aurkeztu genuen liburua prentsaurrekoan Donostiako Konstituzio plazako liburutegian, eta aurreko astelehenean Eneko Goiak, Donostiako alkateak, adierazi zuen Polloe kanposatuan hamazazpi milizianoen gorpuzkinak aurkitu eta identifikatu zituztela. Guztiak Frankisten mausoleoan lurperatuta zeuden, Los Caidosen bezala. Dirudien aspalditxo Aranzadik bazuen horren susmoa, baina publiko egin zen astelehen horretan, eta ostegunean izan zen gure liburuaren aurkezpena. Narrazio hauek memoria historikotik badute, narrazio batean, Negua ematen zuen udazkeneko arratsalde hartan narrazioan, hain zuzen ere, bi pertsonaia hizketan ari dira, lagunak dira, dagoeneko altxamendua gertatu da eta lagun batek bestea alde egiteko konbentzitu nahi du. Bigarrenak esaten dio ea zergatik egin behar duen alde, berak ez duela ezer egin, eta orduan, atzera ere, lehenengo lagunak esaten dio eta aipatzen ditu benetan gertatutako pertsonen kasua: "Bai, gogoratu zure alda-

menekoak Eloy eta Isidro, non daude?". Polloeko kanposatuan aurkitutako hamazazpigarren milizianoa, alfabetikoki ordenatuta Zufiaurre, gure aitona zenaren anaia zen. Orduan aste berean horren berri izan genuen eta Donostian bertan liburua aurkeztu genuen.

**Seinaleren bat ote?**

Urte asko dira ni Polloeko kanposantura joan nintzela bage-nekielako Loiolan erori zela, hori aditua nuen nik, eta bertan egon nintzen. Galdetu nuen eta esan zidaten bertan ez zegoela arrastorik eta ez zegoela erre-gestrorik. Orduan, horrela gelditu nintzen eta orain urte batzuk pasa eta gero aurkitu dute. Ez dakit seinaleren bat izango den, baina poztu nintzen.

**Ekainaren 10ean, ostirala, etxean aurkeztuko duzu. Nola bizi duzu? Urduri zaude?**

Bertigo pixka bat badaukat. Jakin nahiko nuke, positiboki, noski, irakurleek zer harrera egiten dioten. Garrantzitsuena da irakurleen iritzia; irakurleek zer harrera egiten dioten liburuari. Altsuondon gertatzen denez, bertan, hementxe derrigor egin nahi nuen aurkezpena. Argitaletxeak esan zidan baietz, jakina, eta nahi nuen bezala egin nezakeela, eta baiezkoa eman zidaten. Orduan, hementxe aurkezpena berezia izango da. Emanaldira bat, berezia, herritarrei eskainia.

**Beraz, zerbait berezia prestatzen ari zara?**

Dagoeneko prest dago. Bide batez nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet parte hartuko duten herritar guztiei.

**Bigarren zatirako narrazioak dituzu? Idazten jarraitu duzu?**

Oraintxe, ideia bat badaukat, azkenengo astetan hasi naiz. Baina aurretik nik ez neukan liburu hau argitaratzeko asmorik, ez zen nire helburua, eta esperietzia berri hau probatu eta gero ikusiko dugu. Agian, beharbada, irakurleen harrerak animatuko nau edo ez.

**Lehiaketetara aurkezten jarraituko duzu?**

Tarteka idazten jarraitzen dut, momenturen batean, baina lehiaketetara ez naiz aurkezten. Gainera, oinarrietan agertzen da behin argitaratu duzuna ezin dela aurkeztu. Baina, beno, ez dakit. Ideiak badaude, eta hortik sortzen dira bestelako uni-bertsoak.



# "Mendian ibiltzeko tresna oso baliagarriak dira"

Maiatzaren 13an eta 14an Irurtzango Mendi Jardunaldietan mendian galdu gabe ibiltzen ikasteko Wikiloc eta Oruxmaps ikastaroa eskaini zuen Eneko Razkin Orobengoa Iratxo elkarteko kideak. Zalantzak argitzen jarraitzeko prest dago

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN


## 1 Nola animatu zinen Irurtzunen Wikiloc eta Oruxmaps aplikazioen oinarrizko ikastaroa ematera?

Duela 6 urte Wikiloc erabiltzen hasi nintzen. Mendian askotan erabili izan dudana aplikazioa da. Urte batera Oruxmaps aplikazioa probatzen hasi nintzen, eta ongi ikasteko Nafarroako Mendi Federazioan ikastaro bat egin nuen. Material guztia pasa zidaten: aplikazioa instalatzeko programak, mapak... Hura eskuan izanda, Mendi Jardunaldietan ikastaroa eskaintzea proposatu nien Iratxokoei eta ongi ikusi zuten.

## 2 Zer da Wikiloc aplikazioa?

Wikiloc ibilbide asko jasota dituen webgune bat da, ibilbideen datu base bat. Bertan dauden ibilbideak kontsultatzeaz aparte, edozeinek bere ibilbideak igo ditzake, horregatik bilaketak egiterakoan informazioa ongi begiratu behar da. Wikiloc-ek ibilbide horiek deskargatzea ahalbidetzen du, ibilbide horiek jarraitu ahal izateko.

## 3 Wikiloc-eko ibilbide batzuk oso ongi azalduta daude, argazki, deskripzio eta guzti dituztela.



Eneko Razkin Orobengoa, mugikorrean ibilbidea kontsultatzen. UTZITAKOIA

Whitepoint tresna erabiltzen dute, bandera bat bezalakoa, azalpenak eta argazkiak txertatzeko, iturria dagoela zehazteko, kasu.

## 4 Wikiloc-eko ibilbideak ongi begiratu behar direla esan duzu.

Hobe da ezberdinak ikustea eta alderatzea. Horrek ez du esan nahi tracka, ibilbidea markatzen digun marra edo arrastoa gaizki dagoenik, baina deskribapen zabalagoa badu, fidagarriagoa izan daiteke.

## 5 Zer da Oruxmaps aplikazioa?

Mapa aplikazio offline bat. Nolabait azaltzeko, mendi GPS dispositiboa telefonoan instalatuta izatea ahalbideratzen du Oruxmaps-ek. Egungo telefono mugikorrek bere GPS unitatea dute, eta aplikazio hauei esker mapak telefonoan sartu, eta gure mugikorrek Garmin edo halako dispositiboen zerbitzu bera eskaini dezake.

## 6 Erabilera erraza da?

Bai. Ordenagailu bidez, eta dohakoa den Garmin BaseCamp programa erabilia, mapak mugikorrean instalatzen dira. Garmin BaseCamp programan nahi ditugun ibilbideak editatu ditzakegu, eta gero mapak mugikorrean jaitsiko ditugu.

## 7 Googlemaps-en antzekoa izan daiteke erabileran?

Antzekoa, baina Googlemaps erabiltzeko Internet konexioa behar da, eta Oruxmaps erabiltzean ez da konexiorik behar, mapak telefonora jaitsi ditugulako. Mendian ibiltzean sarritan ez dago konexiorik, eta horretarako erabiltzen dira GPSak edo Oruxmaps.

## 8 Ikastarora joan zirenak zer ziren, beteranoak ala gazteak?

Hamalauk eman zuten izena eta gehienak beteranoak ziren, baina nire inguruko gazteei ere lagundu izan diet aplikazioak instalatzen eta erabilera irakasten. Lagun batek ez zuen telefonoan GPSa erabili nahi, baina Pirinioetara joateko instalatu zuen eta esan zidan oso baliagarria izan zuela. Tresna baliagarria da, eta eskura izanda, mendira lasaiago joateko aukera

eskaintzen du. Ezezagunak diren tokietara joateko tresna egokia.

## 9 Zer moduz joan zen ikastaroa?

Lehendabiziko egunean ordenagailuetan eta mugikorretan aplikazioak eta mapak instalatu genituen, eta gehiegi luzatu zitzaigun. Bigarren eguna beste modu batera planteatu nuen: aurretik herrian barna prestatutako hiru ibilbide grabatu nituen eta ginkana antzekoa eginez, Iratxo izena osatzen zuten hizkiak topatu behar genituen. Ongi pasatu zuten eta pozik joan ziren, ibilbidea deskargatzen eta hura jarraitzen ikasi genuelako eta ikusi zutelako aplikazioak errazak eta erabilgarriak direla. Hori zen nire helburua.

## 10 Zer iruditu zaizkie aplikazioak?

Oso baliagarriak. Pixka bat trasteatuta, aplikazioen oinarrizko erabilera, hau da, ibilbideak deskargatu eta jarraitzea, berehala harrapatzen duzu. Mendian segurtasun hori izatea asko baloratzen dute mendizaleek. Hemendik aurrera bere kabuz praktikatuko beharra dute, batzuk dagoeneko ari dira, eta edozein arazo badute, nigana etor daitezke lasai asko.

## 11 Zer moduzko esperientzia izan da? Jendea hurbiltzen al zaizu aholku eske?

Oso polita. Bikotea irakaslea da, eta berari ulertzeko ere lagun-garria egin zait: ikasleak motibatuzeko klaseak nola moldatu, beti hobetzeko ideia horri jarraiki. Gustura aritu naiz. Jendea hurbiltzen zait, bai. Batek ziza larreak markatzeko instalatu nahi ditu. Norbait hurbiltzen bazait, ni erakusteko prest.